



Bedeinkatuta

Nazioarteko Atletismo Federakuntzaren urteko argazkilari onenaren saria irabazi du **Felix Sanchez** oñatiarrek

Oñatiko espeleologian aitzindariak

Felix Ruiz de Arkauteren gidaritzapean, Euskal Herriko leizeetan egin ziren esplorazio inporteneenetan parte hartu zuten hainbat oñatiarrek 1950ko hamarkadan

Aloña Mendiko Espeleologia Taldeak 50 urte bete dituen honetan, Jose Luis Txintxurretarekin hitz egin nahi izan dugu. Bera izan zen Oñatiko espeleologiaren aitzindarietako bat, kirol elkarteko saila sortu aurretik. Modesto Zilaurren, Antonio Arratibel eta Pedro Maiztegiarekin batera Felix Ruiz de Arkauteren taldea osatu zuten, Aranzadi Zientzia Elkartearen babesean, eta Euskal Herriko leizerik inportanteenetan egin ziren esplorazioetan parte hartu zuten 1950-60 hamarkadetan.

Noiz eta nola hasi zineten espeleologian?

Gu oso mendizaleak ginen (Perdido, Aneto, Veleta edo Mulhacen bezelako mendietan ibiliak), eta eskaladan lehenengo urratsak ematen ere hasiak ginen. Gogoan dut, adibidez, Zegamatik Aizkorrira igotzen ginela paretan gora.

Eta garai hartan, 1951. urtea izango zen, gizon bat hasi zen Oñatira etortzen. *Derbi* markako motor batean etortzen zen eta Gesaltzan sartzen ikusten nuen. Behin, jakin-minak bultzatuta, galdezka hurbildu nintzaion, eta orduantxe jakin nuen Felix Ruiz de Arkaute zela. Handik gutxira harekin bat egitea erabaki nuen, eta gero Trianako kuadrillako lagun batzuk batu zitzaizkigun: Modesto Zilaurren, Pedro Maiztegi, Antonio Arratibel, nire anaia Angel... eta 'Arkauteren taldea' osatu genuen, Aranzadi zientzia elkartearen babesean.

Maixu ona izan zenuten, beraz.

Jakina. Aita tolosarra zuen, baina Belgikan jaioa zen Arkaute. Frantzia ibilia zen espeleologo lanetan, eta metodologia nahiz material berriak ekarri zituen. Metalezko eskalak, adibidez, orduantxe erabiltzen hasi ziren; Arkautek berak prestatzen zituen aitaren paper-lantegian.

Espeleologia talde ezberdinen arteko elkarlana bultzatu zuen Arkautek, eta itzal handiko espeleologoa izan zen, bai hemen eta baita nazioartean ere.

Zuen aurretik izan al zen beste espeleologorik Oñatin?

Reyes Korkostegi ibilia zen urte batzuk lehenago, Pedro Elozegi eta Juan San Martinekin batera Gesaltzako koba ikertzen, baina ez zeukaten material egokirik eta ezin izan zuten askorik sakondu.

Zein izan zen zure aurreneko haitzuloa?

Arrikutz. Arkauterekin batera. Gogoan dut, oraindik, tako formako egutegiko orriak erabiltzen zituela kobazuloan barrena orientatzeko.

Zeren bila joaten zineten?

Gure helburua izaten zen leku berriak aurkitzea, aurretik beste inor egon gabeko tokitan egotea. Gu ez ginen zientzialariak. Gogoan dut, adibidez, hezur pilla bat ikusten genituela, baina ez genien garrantziarik ematen, gure ezjakintasunagatik. Artzen bi buru-hezur atera genituen oso-osorik, eta letagin batzuk ere bai. Baina

«Gu ez ginen zientzialariak. Gure helburua izaten zen leku berriak aurkitzea; aurretik inor egon gabeko galeriak deskubritzea»

JOSE L. TXINTXURRETA
Espeleologo ohia



gure benetako helburua izaten zen kobazuloan barrura joatea, ahalik eta urrutien, ahalik eta sakonen, eta galeria berriak aurkitzea.

Eta aurkikuntza asko egin al zenituzten?

Bai, noski. Arrikutzen bertan 'Bosque de las maravillas' delako galeria, 'Torre de Pisa' izeneko estalagmita ederra (gero erori egin zen), 'Galeria del hambre' izeneko, janaririk eta ia argirik gabe geratu ginelako... Arkautek ipintzen zizkien izenak.

Oñati inguruko koba askotan ibili ginen: Gesaltza, Txin-Txin koba, Urzulo, Katabera, Artzanburu... Domekero joaten ginen kobazulo ezezagunak arakatzera. Zulo bat non, hantxe sartzen ginen. Haitzulo handiren bat aurkituz gero, Arkauteri deitzen genion, eta bera etortzen zen, edo, bestela, materiala uzten zigun geu barneratzeko.

Topografiatzen al zenituzten leizeak?

Arkautek. Guk lagundu egiten genion. Soka fin bat eramaten zuen, txanpon batzuekin; 5 metroko tartetan 5 xentimoko txanpona, eta 10 metrora, 10 xentimokoa. Halaxe kalkulatzeko genituen distantziak. Galerien altuera eta zabalera neurtzeko linternaren fokua hartzen genuen erreferentzia moduan, gutxi gora behera. Orientazioa zehazteko iparrorratz bat erabiltzen zuen

Arkautek. Koaderno batean dena jaso eta, gero, Tolosan, planoak idazten zituen.

Argazkiak ateratzeko magnesio-hautsa erabiltzen zuen Arkautek. Argiak itzali, objetiboa zabaldu, eta magnesioaren bat-bateko su-garra baliatzen zuen irudiak hartzeko. Argazki bat edo bi atera ahal izaten ziren gehienez, galeria kez betetzen baitzen.

Oñatitik kanpora ere, Euskal Herriko leize inportanteenetan ibili zineten, ezta?

Bai, Arkauterekin batera, beti ere. Karrantza bailarako *Torca del Carlita* koba ospetsua esploratzen ibili ginen. Garai hartan eza-gutzen zen salarik handiena zegoen bertan. San Martingo Harria (Nafarroa) leizean ere ibili ginen mila metrotik gorako sakoneran. Ataunen, errekaen norabidea ikertzen, Aitzbeltz-en (Mendaro), Aralarren ere sarri, Iruñako *Príncipe de Viana* taldekoekin batera, Araban erreskate lanetan... eta beste hainbat lekutan. Sakonerako taldea ginen gu. Zorionez, ez genuen sekula ezbehar larririk izan.

Lan inportantea egin zenuten, bistan denez.


Gaur egun arte jarraitu duen ikerketa lan baten hasiera izan zen hura. Gure mapak abiapuntua izan ziren gero etorri diren ikerlari entzat. Gaur egungo espeleologoek askoz ere formazio hobea dute.



Esteban Larraioz eta Jose Luis Txintxurreta, Arrikruzeko sarreran



Felix Ruiz de Arkaute, J.L. Txintxurreta, Esteban Larraioz, Antonio Arratibel, Roland Rigault eta Modesto Zilaurren Ataungo leizean



Goian Pedro Maiztegi Arrikruzeko eszentrikan. Behean, J.L. Txintxurreta



Jose Luis Txintxurreta, Tomas Biain, Pedro Maiztegi eta Angel Txintxurreta Arrikruzeko galeria batean



Karrantzako *Torca del Carlita* kobaren sarreran, J.L. Txintxurreta eta Felix Ruiz de Arkaute (kapelarekin), beste bi espeleologoekin.



Modesto Zilaurren, J.L. Txintxurreta, Antonio Arratibel, Pierre Rigault gaztetxoak eta honen bi lehengusu, *Bosque de las maravillas* galerian

smk

san miguel kooperatiba

943 781 217

kale barria 8 - 20560 oñati

www.sanmiguel.coop



Atletismoko urteko argazkirik onena

Atletismo Federazioen Nazioarteko Elkaratek urteko argazkilari onenaren saria eman dio Felix Sánchez Arrazola oñatiarrari.

Argazkiak: Felix Sánchez

Felix Sánchez saria jasotzen Ato Boldon atleta ohiaren eskutik

Felix Sánchez Arrazolak Nazioarteko Atletismo Federazioen Elkaratek (IAAF) ematen duten urteko argazkilari onenaren saria jaso du 'Bedeinkazioa' izeneko argazkiari esker. Iazko Elgoibarko krosetan irabazleak agertzen da bertan, helmuga gurutzatu berriaren, belaunikatuta. Abenduaren 4an egin zen sari emate ekitaldia, Monakon, urteko atleta onenak saritzeko egiten den gala berezian, eta bertan izan zen argazkilari oñatiarra, hainbeste miresten dituen izarrez inguratuta. "Atletismoa da nire kirola. Beti aritu izan naiz atletismoan, lesio baten ondorioz utzi behar izan nuen arte, eta orain, kirol honetako nazioarteko erakunde gorenak halako aitortza egitea, sentimentalki jaso dezakedan saririk handiena da niretzat".

Hilabete joan bada ere saria jaso zuenetik, begiek dir-dir egiten diote oraindik Monakon bizi izandako uneak gogoratzean. "Aurrean ikustea Monakoko printzea, Sebastian Coe, IAAFeko presidentea eta nire idoloa izan dena beti, eta beste atleta handi asko txaloka eta pertsonalki zorionak ematen, esperientzia oso berezia izan zen niretzat, ahaztezina".

Hunkigarria izan zen, bereziki, argazkian protagonista den Selemón Barega etiopiarra taula gainera igo zen unea. Esker oneko hitzak esan ostean, "sari erdia zurea da" esan zion Sanchezek, eta atleta etiopiarra jende artetik atera zen, modu espontaneoan, oñatiarra besarkatzera. Atletismo federazioak argazki sarituta oparitu zion.

«Sentimentalki jaso dezakedan saririk handiena dau hau niretzat»

FELIX SÁNCHEZ ARRAZOLA

Argazkilaria



Sánchez, eta argazki sarituan protagonista den Barega

ARGAZKI 'DESBERDINA'

Saritutako argazkiari dagokionez, "desberdina" dela dio Sanchezek. "Teknikoki argazki hobeak ditut, baina honek denetik du; Elgoibarko krosetan izatea, helmugako zinta lurrean, atleta erabat lokaztuta, bere keinua... Esan-indarra dauka, eta horregatik bidali nuen".

Orain dela hamahiru urte hasi zen Sanchez argazkiak egiten, atletismoa eta triatloiaren inguruan beti ere, eta gaur egun bere bigarren lanbidea bilakatu da. "Oso zaila da, gaur egun, kirol argazkilaritzatik bizitzea, eta, beraz, nire denbora libre eskaintzen diot". Euskadiko kirol hitzordu nagusietara joaten da asteburuetan eta *Runner's World*, *Triathlon* eta *Sportlife* aldizkariekin kolaboratzen du.

Sariak ez omen du bere ohiko jarduna aldatuko, baina kirol ekitaldi handietara joateko aukera gehiago izatea espero du, oso zaila izaten baita halakoetarako akreditazioa lortzea. Aurten Doha-ko (Qatar) munduko txapelketetara joan nahi du, udako oporraldia aprobetxatuz, eta 2020an Pekingo Joku Olinpikoetan egon nahi luke.

Argazki onak ateratzeko sekretuaz galdetuta, "pasioa" aipatu digu; "atletismoa pasioz bizi dut, eta horrek erraztu egiten du. Egutero ikasten jarraitzeko gogoia ere oso inportantea da. Dena dakizula uste baldin baduzu, akabo". Bere *Facebook* eta *Instagram*-eko ormetan ikus daitezke Sanchezen argazkiak.



ATEAK ZAPALIK

*Eskola bizia
eta aktiboa gara*



*Publikoa eta
kalitatezkoa*

URTARRILAK 26

- Txiki Txokon: 11:00etatik 13:00etara

- Errekalden:

BISITA GIDATUAK.

1.Txanda 17:00etan 2.Txanda 18:00etan

FAMILIENTZAKO EKINTZAK

URTARRILAK 29

- Zuazolan: 18:00etatik aurrera

Etorri gure egunerokotasuna ezagutzera. Merezi du!!



www.urgain.eus
zuzendaritza@urgainerrekalde.eus

IHESALDI GELAK

izan zure pelikulako protagonista ordubetez

Asier eta Aimar Santos anaiek duela hiru urte zabaldu zuten lehen **Ihesaldi Gela** Gasteizen, eta dagoeneko **15 sala** ireki dituzte estatu osoan. '**Sala Enigma**' marka sektoreko frankizia inportanteena bilakatu da Espainia mailan.



Orain dela hiru urte hasi zen dena. Asierrek Budapesten ezagutu zituen *Escape Room* izeneko aretoak, aisialdirako aukera gisa. Askok gustatu zitzaion esperientzia, eta etxera itzuli zenean, Ihesaldi Gela bat zabaltzea erabaki zuen Aimar anaiarekin batera. Gasteizen ireki zuten 'Sala Enigma' izeneko aretoa, eta orduz geroztik gelditu gabe dabilta. Dagoeneko 15 gela dituzte estatu mailako hiriburu garrantzitsuetan (Ourense, Bartzelona, Malaga, Sevilla, Valentzia, Badajoz, Madril...) eta erreferente bihurtu dira aisialdiari dagokionez. 'Sala Enigma' marka estatuko frankiziarik inportanteena da egun, Ihesaldi Gelen (*Sala de Escape*) sektorean.

"Ezin sinetsita gaude, egia esan" aitortu digu Asierrek; "apalki hasi ginen, duela hiru urte, zalantza askorekin, gauza nahiko berria zelako gure artean, eta noraino iritsi garen ikustea oso pozgarria da".

Ez omen da moda kontu bat. Ihesaldi Gelak gelditzeko etorri direla uste du Asierrek. "Engantxatu edo harrapatu egiten duen aktibitate bat da. Hasieran kosta egiten zaio jendeari probatzea, baina hasierako urrats hori emanda, jendeak errepikatu egin nahi izaten du. Lagunekin edo familiarekin ondo pasatu nahi

baduzu, aukerako aktibitatea da".

'ATARAXIA' MARKA

'Sala Enigma' marka sortu zuten Santos anaiek 2015ean, Bigarren Mundu Gerrako 'Enigma' kriptografia makina erreferentzia bezala hartuta, eta 9 frankizia ireki dituzte marka horrekin.

Baina 2017an, Sevillan 'Enigma' izena beste areto mota batek zeukala ikusita, marka berria sortzea erabaki zuten: *Ataraxia*. "Andaluzia izendatzeko erromatarrek erabiltzen zuten hitza da; la-saitasuna edo arazorik eza esan nahi du" azaldu digu Asierrek. Dagoeneko 5 gela ireki dituzte marka honekin. "Enigma markako jokoetan enkriptazioa, historia eta talde lana dira gakoak; *Ataraxia* aretoetan berriz, emozioekin jokatzen dugu gehiago: kaosa, beldurra...".

IHESALDI GELA NATURAN

Normalean, biztanle kopuru handiko hirietan zabaltzen dira Ihesaldi Gelak, baina honetan ere aitzindariak izan dira Santos anaiek, eta, hala, 30 biztanleko Orokieta herrian (Nafarroa) ireki zuten halako gela bat. "Basaburua eskualdea biziberritu nahian dabilen emakume kooperatiba batek deitu zigun, aktibitate desberdin bat ipini nahi zutela

Jokoak euskaraz egiteko aukera dago Sala Enigma aretoetan



Zer dira Ihesaldi Gelak

Ihesaldi Gelak (*Escape Room* edo *Sala de Escape*) intriga, misterioa eta emozioa uztartzen duten jolasak dira, taldean egiten direnak (kuadrillan, familian, lankideen artean...). Gutxienez bi pertsona behar dira eta gehienez bost. Partehartzaileak bereziki girotutako gela batean sartzen dira, eta atea ixten den unetik aurrera ordubeteko denbora tarteak dute bertatik irteteko. Horretarako, gelan aurkitutako dituzten arrastoak jarraituz, hainbat proba edo enigma argitu beharko dituzte.

Informazio gehiago:

www.salaenigma.com / www.atrx.es

esanez. Egia esan, nahikoa arriskutsua zen, baina, hala ere, apustua egin genuen, eta oso erantzun ona izaten ari da. Aire libreko *Ghyrkana* edo *Escape Natura* moduko bat ere prestatu dugu, non proba ezberdinak gaudituz bisitariak bertako geografia, historia eta kultura ikasten duen. Azken bi urteetan 10.000 bisitari izan dituzte”.

Basaburuakoaz gain, Euskal Herrian beste bi areto dituzte Santos anaiek: Gasteizko Sala Enigma (hiru joko ezberdinekin) eta Durangoko Ataraxia gela.

EUSKARAZ ERE BAI

Ihesaldi Gela bakoitzeko detaile txikiak ere zaintzen dute Santos anaiek, eta hori da, ziurrenera, arrakastaren gakoa. Jokoak kopiatu ordez, hiri bakoitzera egokitutako aktibitateak diseinatzen eta prestatzen dituzte, merkatu azterketa eta dokumentazio lan sakona eginez.

Aretoetako dekorazioa ere bereziki zaintzen dute, eta, hala, Ourenseko gela

girotzeko, *Mad Max: Furia en la carretera* pelikulari esker 2016ko Oscar saria irabazi zuten Retha eta Carlosekin batera lan egin zuten.

Hizkuntzak ere zaintzen dituzte, eta hala, Euskadiko aretoetan jokoak euskaraz egiteko aukera eskaintzen dute (katalanez eta galegoz ere bai, tokiaren arabera).

aktibitateak egiteko eta talde-lana, lidergoa eta sormena bezalako baloreak sustatu eta proban jartzeko.

ETORKIZUNEN ASMOAK

Santos anaiek ez dira geldi egotekoak, eta proiektu ugari dituzte esku artean. Laster bi gela berri zabalduko dituzte Extremaduran eta Madrilan,

Bestalde, ‘Ihesaldi Gela Eramangarriak’ abian jartzeko asmoa dute Santos anaiek. “Errusiako *Matrioshka* panpinak bezala, hiruzpalau malletaz osatutako jokuak dira, inkognitak askatu edo ebatzi ahala zabalduz joango direnak. Aukera ematen digu Ihesaldi Gelaren kontzeptua herri txikietara eramateko, edo enpresetara, edo urtebetetze festa batera. Etxe barruan edo herriko plazan egin daiteke. Aurten, adibidez, Gasteizko udalak eskatuta, bertako plazan ipiniko ditugu joku ezberdinak, birziklapenaren gaia lantzeko jolasaren bidez”.



Bost izarreko batz besteko balorazioa dute Eigma Ihesaldi Gelek Tripadvisor-en

“Euskara ikasten ari den jendearentzat ere aukera polita da, jolasaren bidez hizkuntza lantzeko modu bat baita. Euskaltegiak eta enpresetako Euskara Taldeetako jende asko etortzen zaigu” azaldu digu Asierrek.

Hizkuntzak praktikatzeko ez ezik, enpresek gero eta gehiago jotzen dute Ihesaldi Geletara, *Team Building* erako

eta, gainera, nazioartera jauzi egitea da urte berrirako erronka, Asierrek aurreratu digunez. “Portugal eta Italiako enpresa banarekin hitz egiten ari gara, talde sendo bat osatzeko asmoz. Alemaniako merkatuan sartu nahi dugu, ez baitago oso garatuta sektore honetan, eta ez dugu baztertzeko Hego Ameriketara joatea, bi urte barru”.

OÑATIARRAK ANIMATU

Asierrek eta Aimarrek animatu egin nahi dituzte herritarrek Ihesaldi Gelak probatzera, eta, hala, 5€-ko deskontua egingo diete Durango edo Gasteizko aretoetara joaten diren oñatiar guztiei. “Aukera polita da zerbait desberdina egin nahi baduzu, kuadrillan, familia giroan, ikastetxeak, despedidak...” ■

Nazioartera jauzia emateko asmoa dute aurten Santos anaiek

22,4 milioi euro

2019ko aurrekontuak onartu ditu udalbatzak, EH Bilduren aldeko eta EAJren aurkako botoz


► 6,5 milioi euro bideratuko dira inbertsioetara eta 6,2 milioiko mailegua eskatzea aurreikusten da

22.457.444 euroko aurrekontua izango du udalak 2019an, bukatu berri den urtean baino %19,59 handiagoa (+3,6 milioi). Azpimarratzekoa da, 6,5 milioi euro bideratuko direla inbertsioetara, eta horretarako 6,2 milioiko maileguaren beharra aurreikusten da, nahiz eta kopuru hau txikiagoa izan daitekeen, 2018ko likidazioaren arabera.

Abenduaren 5eko osoko bilkuran onartu zen aurrekontua, EH Bilduren aldeko eta EAJren aurkako botoz. Mikel Biain alkateak adierazi zuen inflexio puntu bat markatzen duten aurrekontuak direla, autofinantzaketa ziklo batekin inbertsio potoloak egiteko unera igaroko garelako.

EAJk aldiz, kezka azaldu zuen aurrekontuek duten defizit maila handiagatik (5,7 milioi). Hurrengo agintaldietarako herentzia kezkagarria uzten dutela esan zuen.

► AURREKONTUA DEPARTAMENTUKA



Aurrekontua arloka

Goiko grafikoak erakusten duen moduan, Kirol departamentuak %155,27ko igoera (2,2 milioi) du iazko aurrekontuarekiko. Kiroldegiko obretara bideratuko den diru atala da arrazoi nagusia.

Lurralde antolaketa departamentuak ere %12,92 ko igoera (700 mila) igoera du, Olaiturri estaltzeko lanek eta beste inbertsio batzuek eraginda.

Barne antolaketa departamentuak ere %9,03ko igoera du, pertsonal gastuen (lanpostu berriak, soldatak...) ondorioz. Gizarte zerbitzuen sailak jaitsiera du, egoitza eta eguneko zentroa Foru Aldundiaren (Kabia) esku geratuko direlako.

Zorpetze maila

2019ko udal aurrekontua orekatzeko 6,2 milioiko mailegu berria aurreikusten denez, udalaren zorpetze maila %6,64koa izango da (2018an %4,19koa zen).

Hala ere, Gipuzkoako 10.000-20.000 biztanle bitarteko udalen batz besteko zorpetze mailaren (%12,90) eta, oro har, Gipuzkoako udalerrien batz bestekoaren (%26,60) azpitik dago, udal kontu hartzaileak bere txostenean dioenez.

2000. urtean udalaren zorpetze maila %22,22koa zen, eta orduz geroztik ahalegin handia egin da zor bizia arintzeko. 2018ko urte amaieran 0,6 milioi ingurukoa da udalaren zor bizia, eta 6,2 milioiko mailegu berria kontratatzen bada, 2019ko amaierako zor bizia 6,5 milioikoa izango da.

Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi duzu?

ETXiAN
Inmobiliaria

Tel.: 943 71 61 60
Mug.: 610 381 244
www.etxian.net

Etxian f

carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

► DIRU SARRERAK KAPITULUKA

I. ZUZENAKO ZERGAK (kontribuzioa, ibilgailuak, gainbalioa, jardura ekonomikoak...)	3.892.855
II. ZEHARKAKO ZERGAK (obra baimenak...)	150.000
III. TASAK ETA BESTE SARRERA BATZUK (zaborra, kiroldegia, etxez etxeko laguntza...)	2.552.163
IV. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK (Foru fondoa, gizarte zerbitzuetako laguntzak...)	8.523.380
V. ONDARE-SARRERAK (Oñargi, Ur Jauziak)	1.052.046
VII. KAPITAL TRANSFERENTZIAK (Hirigintza kuotak (%10), diru laguntzak inbertsioetarako...)	54.000
VIII. FINANTZA AKTIBOAK (kapital itzulketak, interesak...)	28.000
IX. FINANTZA PASIBOAK (mailegua)	6.205.000

► GASTUAK KAPITULUKA

I. PERTSONAL GASTUAK	5.900.222
II. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK (konponketak, argindarra, garbiketa, bulego materiala, etxez etxeko laguntza zerbitzua, lorezantza...)	6.012.866
III. FINANTZA GASTUAK (maileguen interesak)	116.099
IV. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK (Aloña Mendi, musika eskola, kultur taldeak, hirugarren mundua...)	3.376.571
V. KREDITU GLOBALA	14.027
VI. INBERTSIO ERREALAK	6.574.277
VII. KAPITAL TRANSFERENTZIAK (Mankomunitateari diru laguntzak inbertsioetarako...)	97.394
VIII. FINANTZA AKTIBOAK	28.700
IX. FINANTZA PASIBOAK (amortizazioa)	337.284

INBERTSIO NAGUSIAK - 2019

- Kiroldegiaren eraberritzea **2.500.000 €**- Olaiturri estaltzeko lanak **1.000.000 €**- Natur Eskola birgaitzeko lanak **300.000 €**- Partaidetzazko aurrekontuak (*) **250.000 €**.

(*)Herritarrek hautatutako proposamenetako batzuk egingo dira: pasealekuetako komunak, bizikletentzako aparkaleku estaliak, zebraideak argitzea, Olakuako kirol kantxa hobetzea, eta hondakinak gaika batzeko zakarrontziak jartzea.

- Araotzeko estatua eraikitzeko **250.000 €**- San Lorentzo berritzeko 9. areako lanak **240.000 €**- Zubillagako erreko horma sendotzeko **210.000 €**- Olakua-Olapoto berritzeko lanak **200.000 €**- Udaletxean **HAZ** (Herritarrentzako Arreta Zerbitzua) egokitzeko lanak **150.000 €**- Argiteria publikoa berritzeko **130.000 €**- Ludotekako eraikineko igogailua **125.000 €**- Auzoetako inbertsioak **120.000 €**- Jolasguneetako hobekuntzak **100.000 €**- Hiri-Antolamendu Plan Orokorra (HAPO) **100.000 €**- Urgain eskolako sotoko forjatu sanitarioa **60.000 €**- Kanposantuko inbertsioak **60.000 €**- Mendiko gazta ekoizteko azpiegitura **50.000 €**- Berezaoko biltegiko obrak **50.000 €**- Aurrekomendi arroko Paisaia Plana **30.000 €**- Plazako kioskoa berritzeko proiektua **20.000 €**- Iturriak eta bestelako herri altzariak **20.000 €**- Mugikortasun planaren garapena **18.000 €**- Azokako hobekuntzak **15.000 €**

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIENTAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

Aran Hernandez
Bere izena

Zure ETXEA eguneratu gure inbertsio bat erabiltz bere salmenta edota alokairua eratzeko

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com





Mikel Biain EH Bildu

«Inflexio puntua markatzen duten aurrekontuak dira, herriko bi azpiegitura nagusitan (kiroldegia eta Olaiturri) egingo diren obrak direla eta»

2019ko ekitaldirako udalak onartu dituen aurrekontuek inflexio puntu bat markatzen dutela adierazi zuen Mikel Biain (EH Bildu) alkateak, kiroldegia eraberritzeko eta Olaiturriko gunea estaltzeko egingo diren lanak direla eta.

Inbertsio horiei eta beste batzuei aurre egiteko, 6,2 milioi euroko mailegu baten beharra aurreikusten bada ere, kopuru hori nabarmen gutxitu daitekeela esan zuen alkateak, 2018ko likidazioa egiten denean.

Edozein modutan, udalaren egoera ekonomikoa ona dela esan zuen alkateak, finantza zama arintzeko azken urteetan egindako ahaleginaren ondorioz, eta, beraz, inbertsio horiei ekiteko moduan dagoela. "Azpimarratzekoa da, 2019ko aurrekontuek ia 600.000 euroko aurrezki arrunt garbia aurreikusten dutela" gaineratu zuen.

Goian aipatutako bi obra handiez gain, auzuneetako urbanizazioak (San Lorentzo, Olakua...) berritzen jarraituko du udalak, eta udaletxean Herriarrentzako Arreta Zerbitzua (HAZ) martxan jarriko dutela azaldu zuen alkateak. Berdintasun arloa indartzeko konpromisoa ere berretsi zuen (Berdintasun Kontseilua eratu eta teknikari plaza finkoa aterako da).

Gizarte zerbitzuen arloan, larrialdietarako eta arreta psiko-sozialerako laguntzak handitzen dira, eta, bestalde, 250.000 euro bideratuko dira Partaidetzazko Aurrekontuen prozesuan herritarrek aurreratuak proposamen batzuk gauzatzeko (komun publikoak, bizikleten aparkalekuak...).

Aurrekontuak arloz arlo

Udal aurrekontuetan arloz arlo jasotzen diren diru-atal nagusietako batzuk zehazten dira jarraian.

► GIZARTE ONGIZATEA

-Etkez-etxeko laguntza zerbitzuko diru atala handitzen da (+120 mila), Aldundiarekin hitzartutako kofinantziaketa eredu berriaren ondorioz. Aitzitik, San Martin egoitza eta Eguneke Zentroa KABIA foru erakunde autonomoaren menpeko izatera pasa dira urtarilaren 1ean.

-Gizarte larrialdietarako eta laguntza psiko-sozialerako diru-atalak handitzen dira.

► ENPLEGUA ETA SOZIO-EKONOMIA

-Enpresa berrien sustapena (20.000€)

-Langabetuak kontratatze laguntzak (15.000€)

-Gizarteratze-laneratze prozesuetatik datozen pertsonak kontratatze laguntza (15.000€)

-Merkataritza sustatzeko diru laguntzak (20.000€)

-Turismo ekintzen gastuak (232.000€)

► LURRALDE ANTOLAKETA

-Olaiturri gunea eraberritzea (1.000.000€)

-San Lorentzoko urbanizazioa berritzeko 9. faseko lanak (240.000€)

-Olakuako urbanizazioa berritzea (230.000€)

-Plazako kioskoa eta inguruak eraberritzeko proiektua idaztea (20.000€)

-Zubillagako erreka horma (210.000€)

-Udaletxean Herriarrentzako Arreta Zerbitzua egokitzea (150.000€)

-Jolas parkeak berritzea (100.000€)

-Herribusaren kontratua (152.250€)

-Kale garbiketa zerbitzuaren Berezaoko lokala berritzea (50.000€)

-Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aurrerakina (100.000€)

-Herrigunean iturri berriak jartzea (20.000€)

-Azokako berrikuntzak (15.000€)

-Herriko argiteria berritzea (130.000€)

-Mugikortasuna sustatzeko (18.000€)

► AUZOAK ETA INGURUMENA

-‘Auzotasuna’ programa (100.000€)

-Araozko ostatuaren 2. fasea (250.000€)

-Aurrekomendiko Paisaia Plana (30.000€)

-Natur Eskolaren birgaitze lanak (300.000€)

► HEZKUNTZA

-Ikastetxeak eta guraso elkarteak (87.000€)

-Urgain-Errekalde eskolako sotoko forjatu sanitarioa (60.000€)

-‘Hurretik’ (Herri Curriculum) programaren fase berria (33.800€)

-Hezkuntza Mahaiaren ekimenak (27.000€)

► KULTURA

-Kultur taldeentzako laguntzak (70.000€)

-Musika eskolari diru laguntza (137.531€)

-Santa Ana aretoko hobekuntzak (25.000€)

-Antzerki eta musika kontratazioak (85.000€)

► EUSKARA

-Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (13.000€)

-‘Auzoko’ eta ‘Berbalaguna’ (20.000€)

-Euskalgintzako ekimenak (9.000€)

-Euskararen Kriseilua ekimena (7.000€)

-Euskaltegiko bekak (5.775€)

► KIROLA

-Kiroldegia berritzeko lanak (2.500.000€)

-Azkoagain berritzeko proiektua (15.000€)

-Kirol osasuntsua sustatzeko (15.000€)

► BERDINTASUNA

-Berdintasun planeko ekintzak (27.000€)

-Berdintasun teknikari plaza finkoa sortuko da

-Emakumeen Kontseilua sortzea (20.000€)

-Indarkeria matxista jasan duten emakumeen arretarako udal barruko eta instituzioen arteko koordinazio protokoloa jarriko da martxan

-Jabetze Eskola (40.000€)

-‘Selma Huxley’ beka. Lehen edizioko lanaren zabalkundea eta deialdi berria (24.000€)

► HAURRAK ETA GAZTERIA

-Gaztelekuaren 25. urteurrena (30.000€)

-Gaztelekuaren sustapena (202.912€)

-Ludoteka eta Txipistin programa (186.149€)

-Emantzipaziorako laguntzak (50.000€)

-Jarduera soziokulturalak (50.750€)

► PARTAIDETZA ETA KOMUNIKAZIOA

-Partaidetzazko aurrekontuak (250.000€)

-Eltziako mantenua eta hobekuntzak



Lourdes Idoiaga EAJ

«EAJren botoa kontrakoa da, bereziki, aurrekontuak jasotzen duen defizitagatik eta, ondorioz, egonkortasun eta finantza iraunkortasun helburuak ez betetzeagatik»

Gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontu proposamenaren aurka bozkatu zuen EAJk, defizit handia (5,7 milioi euro) jasotzen duelako eta, ondorioz, udal kontuek bete behar duten egonkortasun eta finantza iraunkortasun helburuak betetzen ez dituelako.

Bukatu berri den ekitaldiari (2018) dagokionez, inbertsioen exekuzio maila %27koa dela esan zuen Lourdes Idoiagak. "Udal gobernu taldeak 3,8 milioi euroko inbertsioak agindu zituen 2018rako, eta 1,03 bakarrik exekutatu ditu (azaroaren 29ko dataz)". Planifikazio eta gestio txarra egotzi zion EH Bilduri; "urtea amaitzeaz dago eta oraindik 2,8 milioi exekutatu barik daude".

5,7 MILIOIKO DEFIZITA

2019ko aurrekontu proiektuari dagokionez, jeltzaileen bozera-maleak esan zuen udal kontu-hartzailearen txosteneko adierazle guztiak negatiboak direla. "Sarrera arruntak %2,25 igotzen diren bitartean, gastu arruntak %5,6 igotzen dira, eta defizita salbatzeko 6 milioiko kreditua eskatzea aurreikusten da. Gobernu taldeak aurkeztu duen aurrekontuak 5,7 milioiko defizita du, eta horrek Plan Ekonomiko Finantzarioa egin beharra ekarriko du, ez direlako betetzen egonkortasun eta finantza iraunkortasun helburuak".

Inbertsioei dagokienez, EAJren bozera-maleak esan zuen kiroldegia eraberritzeko lanek 8 milioitik gorako aurrekontua dutela, "eta ez 5,5 milioikoa, orain arte gobernu taldeak plazaratu duen bezala". Eta inbertsio hori guztiori mailegu bidez finantzatu beharko dela kritikatu zuen Idoiagak; "bospasei urte eman dituzue proiektua aztertzen, eta ez zarete gai izan diru fondo

«2018rako 3,8 milioi euroko inbertsioak agindu zituen gobernu taldeak, eta 1,03 bakarrik exekutatu ditu; planifikazio eta gestio txarraren ondorio»

bat sortzeko". Olaiturriko gunea estaltzeko proiektuak 2 milioitik gorako kostua duela kontuan hartuz, "2019ko aurrekontuetan hartzen diren konpromiso ekonomikoek nabarmen baldintzatuko dituzte 2020 eta 2021eko aurrekontuak" gaineratu zuen.

EH Bildu gobernuan dagoenetik udalaren pertsonal gastuak %38 igo direla gogorarazi zuen Idoiagak. "Eta orain, 5,7 milioiko defizitarekin, eta beste 6,8 milioiko inbertsio konpromiso zehatzak hartuta, hurrengo agintaldietarako herentzia kezkagarria aurreikusten da".

PARTAIDETZAKO AURREKONTUAK

Idoiagak positiboki baloratu zuen EH Bilduk eta EAJk adostuta burutu den parte-hartze prozesua, herritarrek erabakitzeke zertan gastatu Udal aurrekontuetako 500.000 euro hurrengo bi urteetan. Eskerrak eman zizkien modu batera edo bestera parte hartu duten herritar guztiei.

Eta gaineratu zuen, sintonia egon dela herritarrek aukeraturako proposamenen eta EAJk azken urteetan egindakoen artean, hala nola: komunak jartzea pasealekuetan, Olakuako kirol gunea berritzea, San Martingo hariztia egokitzea korrika egiteko/aisialdirako...



EAJren eskaerak

2019ko aurrekontuei begira, EAJren udal taldeak 34 eskaera egin ditu. Aurreko urteetatik zetozenak batzuk, eta berriak besteak.

ONARTUTAKO ESKAERAK

- Olakua eta Olapoto eraberritzeko 200.000€
- Landa-auzoetako mugariak digitalizatzeko 40.000€
- Lehen sektorerako diru-laguntza lerro handitzea 12.000€-tik 40.000€-ra.
- San Martin hariztia egokitzeke azterlana (10.000€)
- Auzoetako jaietarako komunak alokatzeko 6.000€
- Auzo-jaietako batzordeen estatutuak legeztatzeke aholkularitza zerbitzua eskaintzea (1.500€)
- Etxebizitza hutsak Bizigune programan sartu eta alokairu soziala sustatzeko aukera aztertzea.
- Lehen sektorearen egoeraren diagnostikoa egitea.
- Oñati 'Euskadi Lagunkoia' programara atxikitzea.
- Azterketa garaian unibertsitateko ikasleentzat asteburuetan ikasgelak irekitzeko aukera aztertzea.
- Eraso sexistak ahalbidetu ditzaketen puntu kritikoak saihesteko neurriak hartzea.
- Oñatiko turismoaren plan estrategikoa egitea.
- Parte-hartzearen inguruko araudia egitea.
- Gogora institutuak memoria eta elkarbizitza arloan proposatzen dituen ekimenetan parte hartzeke aukerak aztertzea.

ONARTU GABEAK

- Estali gabeko igerilekua eta aisialdi gunea prestatzeko azterlana egitea.
- Urrutxuko kirol gunea egokitzeke proiektua egitea.
- Landa-auzoetako argiteria plan orokorra egitea.
- Urrutxuko zaborteia zigitatzeko 2. faseko proiektua.
- Atez ateko bilketa sistema kendu eta edukiontzi bidezkoa ezartzea.
- Herriko gizarte- eta kultura-espazioen azterlana.
- Kultura eta Sormen sariak sortzea.
- Txipistin programaren inguruko azterketa egitea.
- Ume eta gazte etorri berrientzako diru-laguntza lerroa ezartzea, eskola eta kirol materiala erosteko.
- Gaztetxoaren jolas guneetan euskararen erabilera sustatzeko programa antolatzea.
- 'Gazte Astea' antolatzea 15-18 urtekoentzat.
- Gizonezkoak berdintasunean kontzientziatzeko jarduerak antolatzea.
- Komertzio, zerbitzu eta enpresa txikien erreleboa sustatzeko laguntzak. Merkataritzaren diagnostikoa.

Herri lanetarako brigadaren biltegia berritu du udalak

Tamaina txikiko obra zibila, herriko altzarien eta argiteriaren mantentze lana, auzo-bideetako sastraka kentzea, eta jai guztietako eskenatokien muntatze-desmuntatze lanak egiten ditu, besteak beste, udal brigadak

Herri-lanetarako brigada sendotzeko apustua egin du udalak azken urteotan, hamar lagunekko lantaldea osatzeraino. Orain, Goribarreko biltegia ere egokitu eta berritu dute, brigadaren lana hobeto koordinatu eta optimizatzeko asmoz. Lantaldeko buru Andoni Beristainek eman dizkigu azalpenak.

Zein lan egin dituzue Goribarreko biltegian?

Biltegiaren laurden bat, gutxi gora behera, udalaren artxibo edo gordailu bezala erabiltzen zen, baina ez zen leku egokia horretarako, hezetasun handia dagoelako hemen. Horregatik, gordailua Bidebarrieta kaleko lokal batean egokitu du udalak, eta hemen hutsik geratu den espazio hori egokitu egin dugu, bi solairu aterata, gure materiala hobeto antolatu ahal izateko. Gainera, guretako aldagelak ere egokitu ditugu. Aldagela zaharrak lbarran zeuden, eta hura erabiltzen dugu orain negurako gatza gordetzeko.

Zertan hobetuko da zuen jarduna?

Aldagelak hemen edukita, ez daukagu lbarrara joan-etorrian ibili beharrik, eta denbora asko irabazten dugu. Baina, batez ere, irabazi dugun lekua da inportanteena. Orain material guztia (ordezkoak ere bai) eskura eta ondo antolatuta daukagu, eta hori oso lagungarria da.

Zer gordetzen duzu biltegian?

Guztira 1.200m² ditu biltegiak, bi pabilloitan banatuta.

Batean, jaietarako aulki (900), mahai (190) eta eskenatokiak muntatzeko behar den material guztia gordetzen dugu. Aldagelak eta bulego txiki bat ere badaude bertan.

Beste pabilloian tailer txiki bat daukagu soldadura lanetarako, beste gune bat herri-altzarien mantenu lanak egiteko, obra zibilerako materiala (porlana, adreiluak, hareak, seinaleak...) gordetzeko biltegia, elur-kentze nahiz sasi-kentze lanetarako tresnak, sokamuturretako hesiak eta beste hainbat material eta erreminta gordetzeko biltegiak.

Zein lan egiten ditu brigadak?

Igeltsero ofiziala eta pioi bat edo bi, beharren arabera, obra zibila egiten aritzen dira (kanalizazioak, hodi-

↓
**70.000
euro
inbertitu
ditu udalak
brigadaren
biltegia
berritzen**

teria, harlauzak, zintarriak, piboteak...).

Elektrikaria, herriko farola eta argiteriaren mantentze lanez arduratzen da. Beste bi edo hiru lagun herri-altzarien mantentze lanetan aritzen dira (jarlekuak, zakarrontziak, bide-seinaleak, barandak... konpontzen eta margotzen).

Bestalde, apiriletik aurrera sastraka-kentze lanak egiten ditugu herriko auzo-bideetan. Bi kanpaina egiten dira; maiatza



Andoni Beristain, brigadako burua, udalak erosi berri duen atzerako hondeamakinarekin



Goian, ezkerrean, udal brigadako lantaldea, eta eskuman harlauza bat konpontzen Foruen plazan. Behean, brigadaren biltegiak dituen bi pabilioietako bat, aldagelak eta biltegi ezberdinak.

eta ekaina artean lehenengoa, eta uztailetik irailera bigarrena. Gero, udalaren mendi-bideak ere garbitzen ditugu.

Bestalde, apirilean hasi eta urrira bitartean, astebururo egoten diren auzo-jaietarako eskenatokia eta bestelako materiala muntatzen eta desmuntatzen ibiltzen gara.

Udalak dituen eraikin publiko eta babestutako etxeetako mantenuaz ere geu arduratzen gara, eta elur-kentze lanetan ere ibiltzen gara, beharra dagoenean.

Bestalde, orain, negu partean, Lanbide-ren bidez hiru lagun hasten dira gurekin lanean hiru hilabeterako, eta, besteak beste, auzo-bideetako arekak garbitzeko baliatzen dugu; aurtien Olabarrietan eta Larrañan ibiliko gara.

Lehen, horietako lan asko (obra zibila, desbroze eta elur-kentze lanak...) azpikontratatu egin behar izaten zituen udalak.

Atzerako hondeamakina berria ere erosi duzue?

Bai. Obra zibilerako behar genuen. Arekak garbitzen eta elur-kentze lanetan ere erabil daiteke, eta baita kargagailu bezala ere. Orain arte alokatu egiten genuen lan horietarako makineria, eta ikusi genuen merezi zuela inbertsioa egitea, etekin handia aterako diogulako.



Udal artxiboaren GORDAILU BERRIA

Udalaren barne
erabilerarako gunea da



Bidebarria
kaleko 22
zenbakiko
behe solairuko
lokalean egokitu
du udalak
gordailu berria



Udal artxiboko dokumentuak modu egokian mantendu ahal izateko gordailua egokitu du udalak Bidebarrieta kaleko 22 zenbakiko behe solairuan. Oraintsu arte Hermansoloña taldeak erabili izan duen lokala da, 142 m²-ko azalera du, eta bi espazio bereizi dira bertan: dokumentuak gordetzeko gunea (argazkietan ikusten dena), eta lan eremua, lan-mahaia, ordenagailua eta kopiak egiteko makina batekin, kontsultak egin ahal izateko.

Garbi geratu behar da, dena den, gordailu berri hau udalaren barne erabilerarako dela, eta udal artxiboko kontsultak udaletxeko goiko solairuan egingo direla, orain arte bezala.

Bidebarrietako gordailuan udalaren fondo administratiboa (kontu-hartzailetzako txostenak, erregistroko sarrera-irteerak...) eta hirigintza arlokoak (obra handi eta txikiak...) gordeko dira. Argazkietan ikusten den moduan, dokumentuen kontserbaziorako erabiltzen diren armairu trinkoak eta planoak gordetzeko armairu bat jarri dituzte bertan. Gordailua egokitzeko lanek 67.300 euroko kostua izan dute, udal brigadak egindako lanak zenbatu barik.



M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIAKON KONPONKETAK
PERSIANAK, LERROAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GENIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



HEZKUNTZA KOOPERATIBA
EUSKALDUNA



Bisita gidatuak



Bilera informatiboa



Elkarrizketa pertsonalak



Matrikula epea

HH 0-1 urte

Urte osoan zabalik

Bulego ordutegia

Goizean 08:13:00

Arratsaldean 14:00-18:00

HH 2tik aurrera (HH-LH-DBH)

Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

Bulego ordutegia

Goizean 08:13:00

Arratsaldean 14:00-19:00

Informazioa eta izen ematea:
txantxikuikastola.eus • 943 78 12 04

Instalazio berriak inauguratu dituzte Urgain-Errekalde eskolan



Jolasgune zabala, psikomotrizitate gela, gimnasioa, mahai jokoetarako txokoa, komunak eta biltegiak egokitu dituzte Errekaldeko sotoan

Pozik dago Urgain-Errekalde eskolako hezkuntza komunitatea, eta ez da gutxiagorako, 1.165m²-ko azalera eraberritu eta berreskuratu baitute eskola jardunerako, Errekaldeko sotoan. Duela gutxira arte rock musika taldeek eta Oñatz dantza taldeak erabiltzen zuten espazio hori, baina hauek Eltzian kokatu direnez, aspaldian amesten zuen gunea berreskuratu ahal izan du herriko ikastetxe publikoak.

Ines Zubia ikastetxeko zuzendariak esan zuen oso gustura daudela emaitzarekin, eta eskerrak eman zizkien Jaurlaritzako eta Oñatiko udaleko ordezkariari. Azpiegitura eta gela berriak egokitu aurretik, sotoak zeukan hezetasun arazoak konpontzeko lanak egin behar izan dira. Guztira 340.000€-ko (+BEZ) inbertsioa egin da; Jaurlaritzak ordaindu du %60 eta udalak %40.

Hezkuntza saileko Gema Gonzalez de Txabarrik Jaurlaritzaren eta Oñatiko udalaren artean egon den sintonia eta elkarlanerako borondatea goraipatu zuen. Mikel Biain alkateak eskerrak eman zizkien une zailetan eskola publikoaren aldeko apustua egin zuten gurasoei. Erakundeek zerbitzu publikoen aldeko apustua egin behar dutela esan zuen eta, pertsonalki une hunkigarria zela azpiegitura berriak inauguratzea.



Jolasgunea (535m²)

Urgain-Errekalde eskolako ikasleak oso pozik daude instalazio berrieekin, eta bertsoen bidez adierazi zieten agintariari eta ikastetxeko ordezkariari. Gema Gonzalez de Txabarri Jaurlaritzako Hezkuntza saileko ordezkaria, Mikel Biain alkatea, Ines Zubia Errekalde eskolako zuzendaria eta Miren Aranburu Guraso Elkarteko ordezkariak parte hartu zuten ekitaldian. Ondoko argazkietan ikus daitezke azpiegitura berrietako batzuk.



Aisialdi guneko pilotalekua



Gimnasioa (171m²)



Psikomotrizitate gela (168m²)



Psikomotrizitate gela

Jolasgune berritua prest Kasablankan



Argazkian ikusten den moduan, prest dago, jada, Kasablankako jolasgune berritua, Garay enpresaren aldamenean. Ziburu eta txirristaz ghan, ping-pong mahaia eta 20 x 8 metroko belar artifizialeko jolas anitzeko (futbola, saskibaloia...) gunea egokitu du bertan udalak, 54.000 euroko inbertsioa eginda



PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK

2019an egingo diren proiektuak zehaztu ditu udalak

Udal aurrekontuetako 500.000 euro zertan gastatu erabakitzeko partaidetza prozesuan 16 proposamen izan ziren hautatuak, herritarren botoak eta proiektuen aurrekontuak aintzat hartuz.

Orain, udalak erabaki du proposamen horietatik zeintzuk egingo diren 2019an eta zeintzuk 2020an. Aurtengo aurrekontuetan 250.000 euroko diru atala onartu dela kontuan hartuz, boto gehien jaso duten proposamenak lehenetsi ditu udalak, 250.000 euroko kopurura ahalik eta gehien hurbilduz.

Hala, 2019an zehar egingo diren proposamenak honako hauek dira:

2019an EGINGO DIRENAK



1. Erabilera publikoko komun irigarriak Olabarrieta-Asentzio eta San Pedro-Madalenaren artean. **110.000 €**
2. Bizikletentzako aparkaleku estaliak ikastetxe eta instalazio publikoen (kiroldegia eta Azkoagain) inguruan. **60.000 €**
3. Bide-segurtasuna hobetzeko zebra-bideak argitzea. **20.000 €**
4. Hondakinak gaika batzeko launakako zakarrontziak jartzea herriko hainbat lekutan. **13.500 €**
5. Olakuako kirol kantxa hobetzea: margotu, sareak berritu, argiztatu... **47.000 €**



Elikadura kontziente
Alimentación consciente

ELIKADURA ETA OSASUNA

BiziPoz programan aztergai

Zahartzaro aktiboa sustatzeko asmoz, udalak antolatzen duen **BiziPoz** programaren 7. edizioan 'ELIKADURA KONTZIENTEA' jorratuko dute. 'Zaintzen al duzu zure osasuna? Elikadura orekatua daramazu? Garaiko produktuak kontsumitzen dituzu? Ba al dakizu etiketak irakurtzen?...' Elikadura eta osasunarekin lotutako informazio interesgarria eskainiko da bertan, BiziPoz taldeko kideen eta Amaia Diaz de Monasterioguren adituaren eskutik. Zortzi saio izango dira guztira, otsaileko eta martxoko astearteetan (17:00-19:00). Saio bakoitzaren hasieran azalpen teoriko motza egingo du Amaiak, eta ondoren praktikan jarriko dute ikasitakoa.

Urtarrilaren 23an egingo da aurkezpena Euskaldun Berria Gelan (Bidebarrieta, 18) 18:00etan. 55 urtetik gorako herritar guztiak daude gonbidatuta. Plaza mugatuak. Informazioa eta izen-ematea: 638.516.973

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Oñatin Elkarrekin Ekin

Ekintzailetasuna sustatzen jarraituko dute udalak eta Enpresagintza fakultateak elkarlanean

Iaz hasitako bideari eutsiz, 'Oñatin Elkarrekin Ekin' programa antolatu dute udalaren Sozioekonomia sailak eta Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateko *Mondragon Team Academy*-k. Helburu nagusia da ekintzaileen arteko komunitate bat sortzea, elkarren artean ikasteko, elkarri laguntzeko, eta sortzen diren ideia, ekimen eta negozio aukerak aurrera eramateko.

BI FASE

Aurtengo programak bi fase izango ditu: 1. **Ekintzaileen kaptazioa eta ideien garapena** (urtarrila-ekaina); 2. **Start Up process - Negozio ideien azelerazio prozesua** (iraila-abendua).

Lehenengo fasean **komunitate ekitaldiak** antolatuko dira, enpresa edo negozioen kudeaketarekin loturako **aholkularitza eta mentorizazio** saioak eskainiko dira, eta negozio ideiak garatzeko tresna eta metodologiak jorratuko dira, tutoretza pertsonalizatuak eskainiz. Gainera, bi ekitaldi berezi antolatuko dira: **Maker day** (*maker* eta prototipazio kontzeptuak lantzeko) eta **Pitching day** (negozio ideiak modu eraginkorrean aurkezten ikasteko).

Bigarren fasean, negozio bihurtu daitezkeen proiektuak martxan jartzen laguntzeko prestakuntza saioak egingo dira. Horrez gain, jarraipena emango zaie komunitate ekitaldiei eta aholkularitza eta mentorizazio saioei.

KARMELE ARRIZABALAGA / Errekaldeko denda

«Talde lanean aritzeak asko aberasten du zure proiektua»

Errekaldeko denda bere gain hartu behar zuenez, I+G+B (ikerketa, garapen eta berrikuntza) ariketa bat egiteko asmoz eman zuen izena Karmelek Elkarrekin Ekin programan iaz. Eta oso gustura dago bertan izandako esperientziarekin. "Dendan aldaketa edo berrikuntza batzuk egiteko asmoa neukan eta ideia batzuekin joan nintzen (bertako produktuak eskaini, ekologikoak, beganoak...), eta han ideia berri asko eman zizkidaten. Taldean lana egiten denez, jendeak ideia asko ematen dizu, eta aberastu egiten du zure proiektua. Han irten zen, adibidez, 'Txiki-pake'-aren ideia (umeentzako ogitartekoa eta fruta edo yogurta, denborarik gabe dabilzan gutasoenzat) eta oso ondo funtzionatzen ari da. Ikuspegia zabaltzen lagundu dit programak; komunikazioa, talde-lana eta bezeroarengandik gertu egotea zein garrantzitsuak diren jabetu naiz, finantza arloko gauza asko ikasi ditugu eta, oro har, gauza berriak egiteari beldurra galtzen lagundu dit. Oso interesgarria izan da".



AGURTZE INZA / Artz ile-apaindegia

«Irudia landu eta sare sozialetan posizionatzen lagundu dit»

Ile-apaindegia interneten eta sare sozialetan posizionatuz, bezeroei erraztasunak ematea zen Agurtzeren hasierako asmoa, baina Elkarrekin Ekin programak ikuspegia zabaltzen lagundu dio eta zerbitzu berriak eskaintzen hasi da. "Produktu linea berri baten aldeko apustua egin dugu, modu naturalean pertsona bakoitzaren nortasuna eta edertasuna ateratzeko. Gainera, gaur egun dugun gauzarik preziatuenetako bat denbora denez, bezeroak ile-apaindegian dauden bitartean beste tratamendu express batzuk (aurpegirako, eskuendako...) egiteko aukera ere eskaintzen diegu. Proiektua eta zerbitzuak osatzeaz gain, irudia edo marka lantzen ere lagundu dit Elkarrekin Ekin programak, eta orain, Gabonak ostean, hasiko gara sare sozialetan posizionatzen. Gainera, mentore baten laguntza ere badaukat, ile-apaindegian aplikatutako aldaketa eta berrikuntza guztien eragina neurtzeko. Oso lagungarria da".



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfona: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50

San Martingo baratze publikoak erabiltzeko baimenak emateko deialdia egin du udalak

Urtarrilaren 22a da izena emateko azken eguna

San Martingo baratze parkeko ortu sailen erabilera kudeatzeko, udalak 2014an onartu zuen araudiaren arabera, baratzeen erabilera-alokairua urtebeteko aldirako emango da eta, gehienez, lau urte arte luzatu ahal izango da. Horrek esan nahi du, 2014an esleitu ziren 41 ortuen erabilera baimenak iraungita daudela eta, beraz, deialdi berria egin behar dela baratze horien eta hutsik daudenen erabilera baimenak esleitzeko, 2014an onartutako baldintza berberetan.

Interesatuak urtarrilaren 22a baino lehen eman behar dute izena udaletxeko erregistroan, dagokion eskabide orria beteta. Familia-unitate bakoitzeko baratze bat bakarrik eskuratu ahal izango da, eta erabilera baimenak dirauen bitartean titularrak Oñatin erroldatuta egon beharko du. Adin txikikoen kasutan, gurasoek edo tutoreak abalatu beharko du eskaera. Ortu bakoitzaren urteko errenta 5 eurokoa izango da 2019an.



Berdintasun Kontseilua eratzekeo hurrengo bilera urtarrilaren 16an

Berdintasun kontseilu herritarra eratzekeo udalak abian jarritako parte hartze prozesuak bere bidea egiten jarraitzen du. Hilaren 16an egingo da hurrengo bilera irekia. Udazkenean egindako hiru bileren balorazioa egin eta aurrera begira jorratu beharrekoak zehaztuko dira bertan.



Udaletxean izango da bilera, 18:30

EGUBERRI JAIA Eguneko Zentroan

Urteroko ohiturari eutsiz, eguberrietako festa ospatu zuten Eguneko Zentroan abenduaren 27an, zerbitzua erabiltzen duten herritarren senideekin batera. Musika Eskolako trikiti taldea lagun, Gabon kantak abestuz eman zioten hasiera ekitaldiari. Gero, zerbitzuaren erabiltzaileek urtean zehar egiten dituzten eskulanak ikusteko aukera izan zuten senideek, eta luntx batekin borobildu zen jaia.

Gaur egun 30 erabiltzaile ditu Eguneko Zentroak. Orain arte udalaren menpekoa izan den zerbitzu hau Kabia (Foru Aldundia) erakundearen esku geratu da urtea hastearekin batera, baina Arrasateko Aita Mennik taldeak kudeatzen jarraituko du orain arte bezala.



Bixente Atxa MU-ko errektore, beste lau urtez

Bixente Atxa oñatiarra izango da beste lau urtez Mondragon Unibertsitateko errektorea. Bere bigarren agintaldia izango da. Atxak 53 urte ditu, elektronikako goi mailako ingeniaria da eta doktorea elektronika eta komunikazioan. Goi Eskola Politeknikoko zuzendaria izan zen zortzi urtez, eta Mondragon Unibertsitateko zuzendaritza kontseiluko kide, errektore kargua hartu aurretik, 2015ean.



Eskola material ugari sahararentzat

Tindouf-eko (Aljeria) sahararren kanpalekuek eskola materiala bidaltzeko kanpaina oso arrakastatsua gertatu da. 25-30 kilo materialez betetako hamar kaxa batu dira, eta Hermansoloñak eskerrak eman nahi dizkie modu batera edo bestera lagundu duten herritar guztiei, erakutsitako elkartasunagatik.

 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

Urtarrilaren 12ko manifestaziora joateko deia egin du SAREk

Presoen auzia askatzeko eta espetze politika honekin behingoz amaitzeko unea dela exijitzeko, urtarrilaren 12an Bilbon eta Baionan egingo diren manifestazioetara biltzeko deia luzatu du Sare plataformak. Elkarbizitzarako eta guzientzako izango den bakea eraikitzeko aukera daukagula uste du Sarek. Autobusak irtengo dira Oñatitik 10:00etan eta 15:00etan. Txartel salmenta, urtarrilaren 4tik 11ra Euskaldun Berria gelan (Bidebarrietan 18) 11:30-13:30 / 18:30-20:30.

'Aniztasunetik eraikiz' saria jaso dute Elkar Heziko DBHko ikasleek



Giza Eskubideen Egunarekin batera, abenduaren 10ean egin zuen Foru Aldundiak *Aniztasunetik Eraikiz* egitasmoaren sari banaketa ekitaldia. Gipuzkoa osoko bigarren hezkuntzako 10 ikastetxetako ikasleek parte hartu dute, aniztasunaren eta giza eskubideen inguruan hausnartu eta konpromisoa sustatzeko programa didaktiko honetan, eta Elkar Hezi ikastetxeko DBH 4-ko ikasleek prestatutako ikus-entzunezkoak bigarren saria jaso zuen.



Juanitosarena, erakusleihorik onena

Juanitosa bazarrak irabazi du Gabonetako XI. Erakusleio Lehiaketako sari nagusia (500 €). Lehiaketa irabazten duen hirugarren aldia da. Bigarren saria (200€) Urtxin loradendarentzat izan da, eta hirugarrena (200€) Andrea Azkoaga barne-diseinu dendarentzat. Herritarren saria (500€) Kimu loradendak jaso du, boto guztien (1.048) %15 jasota. Denera 27 komertzioz parte hartu dute. Ana Martin zinegotziak zoriondu egin ditu denak egindako lan bikainagatik.



Amalur eta Chic, Singular dendak

Chic arropa dendak eta *Amalur* belar-dendak 'Singular Denda' errekonozimendua jaso dute. Gipuzkoako Merkataritza Elkartek ematen duen aitortpena da, formazio prozesu jakin bat gainditu duten komertzioei. Tokian tokiko dendek lehiakortasuna hobetzea da Singular Dendak-en helburua. Horretarako, saltzaileen kompetentziak, saltokia, erakusleihoak edota komunikazioa hobetzeko tresnak lantzeko formazio saioak egiten dituzte. Aurretik, Maibi eta Arkauz Optikak ere jaso dute *Singular* errekonozimendua.



ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



Izaro Elorza izango da EH Bilduren alkategaia

Zine aretoa lepo beteta aurkeztu zuen koalizio abertzaleak alkatetzarako hautagaia

Sektore ezberdinetako herritar askoren babesa irudikatuz aurkeztu zuen ofizialki EH Bilduk 2019ko udal hauteskundee-tan alkategai izango den Izaro Elorza Beitia.

Eta, hain zuzen, zine aretoa bete zuten herritarrei eta beragan konfiantza jarri duen EH Bilduren komunitate osoari esker-
rak emanez hasi zuen bere hitzaldia koalizio abertzalearen zerrendaburua izango denak. Etor-kizuneko Oñatiko diseinatzea helburu duen *Harittu* prozesuan parte hartzen ari diren herritar guztien ekarpena eskertu nahi izan zuen Elorzak, elkarlanaren balioa azpimarratuz.

Harittu prozesua abiapuntu hartuta, hurrengo pausua herri proiektua osatzea dela esan zuen Elorzak, bai herri mailan

aritzeko, baita udaletik kudeatzeko ere.

Ildo horretan, Mikel Biain alkatea buru izan duen gobernu taldeak azken zortzi urteetan egindako lan "ederra"ri segida eman nahi liokeela adierazi zuen Elorzak, "Oñati herri duin, aske, justu eta jasangarri bat izateko".

Herri proiektuaren ardatzak izango direnak ere aletu zituen EH Bilduren alkategaia izango denak. "Aberastasuna birbanatu eta gizarte osoaren ongizatea ziurtatuko duen herri duina izan nahi dugu, euskalduna eta berdinzalea. Kalitatezko enplegua sortuko duena, sozialki bidezkoa eta fiskalki arduratsua. Ekonomikoki, sozialki eta ingurumenarekiko jasangarria izango den herria, herritar sortzaile, kritiko, burujabe eta librez osatutakoa,

askatasunean eta demokrazian oinarritutako etorkizuna helburu duena".

Amaitzeko, Elorzak gogoratu zuen EH Bilduren ateak zabalik daudela ekarpenak egin nahi dituzten herritar guztientzat.

«Gure ateak zabalik daude ekarpenak egin nahi dituen orori, ez baitago elkarlana baino balio haundiagorik»

Izaro Elorza
EH Bilduren alkategaia

'HARITTU' PROIEKTUA

Iazko udaberrian jarri zuen abian EH Bilduk *Harittu* prozesua, etorkizuneko Oñati diseinatzeko asmoz. Iraila bitartean, herriaren diagnostikoa egin zuten hainbat herritarren ikuspuntuak batuta, zer mantendu eta zer hobetu behar den identifikatzeko. Orain Ekintza Plana lantzen dihardute, eta hortik eratorriko da hauteskundeetarako herri programa, arlo instituzionalean eragiteko, erakundeetatik haratago egin beharreko lana baztertu barik.



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak

Berezo Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21



SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserrniko agia,
egurrezko labean egina



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



Berdura PLAZIA

larunbatero (8:00-14:00)

HILE HONETAKO PRODUKTU AIPAGARRIAK

**TREMESA**

%100 arto urunez egindako ogia eros daiteke azokan. Esnetan bustita jateko oso goxoa.

3,5€ OPILA**ZUKU NATURALAK**

Sagar ekologikoz egindako zuku naturalak ere aukeran ditugu azokan.

3,5€ BOTILA*Zenbat eta hurragokoa orduan eta gozoagoa***NIEVES IZURRATEGI****GURE EKOIZLEAK**

Gaur egun Oñatiko berdura plazan dauden ekoizleen artean beteranoena da Urbietako Nieves. Barruan, gaur egun Gaztelekua dagoen tokian egiten zen garaian hasi zen azokara etortzen, orain dela 32 bat urte. Garai hartan jende gehiago ibiltzen omen zen berdura plazan, bai erosten eta baita saltzen ere, baina gaur egun ere pozik eta gustura etortzen da azokara larunbatero. "Oso eskertuta nago ni. Niretako irtenbide oso ona izan da azoka. Etxean lursailak ditugu, baratzeak eta gustatu egiten zaigu, eta hemen etxeko produktuak zuzenean saltzeko aukera edukitzea gauza ederra da guretzat. Konforme nago ni".

Urte osoan egoten da Nieves azokan, (berak ezin badu, alabak egoten dira), garaian garaiko produktu fresko eta eder askoak eskainiz.

Tomate garaian horixe izaten da Urbietako baserriko produkturik estimatuena, bertako hazitik ateratako tomate berezia izaten duelako, etxekoa, betikoa. "Tomatea egosi eta botilatan ere saltzen dugu, baina, aurtan, inguruan tomate gutxi egon denez, berehala saldu dut dena". Arraultzak ere saltzen ditu Nievesek, eta, gainerakoan, sasoiko barazki ederrak, argazkin ikus daitekeen moduan.

Begi onez ikusten ditu azoka indartzeko asmoz udalarekin batera antolatutako diren zozketak eta bestelako ekimenak, eta batez ere gazteak animatu nahi ditu azokara hurbiltzera, "produktu freskoa, naturala eta bertakoa nahi badute, hementxe aurkituko dute".



"Niretako irtenbide oso ona izan da azoka, etxeko ugata saltzeko"

Urtarriletik maiatzera hilero erosketa orga bat zozkatuko da azokako bezeroen artean

ELKAR HEZI, etorkizuneko gizartea Ereiten

Pertsona izaten eta elkarbizitzen ikasten. Haur eta gazte kontzienteak, kritikoak eta solidarioak hezten, gizarte eraldaketarekin konprometitua, zoriontasunaren bidean, mundu hobea sortzea helburu.



Arg.: Nagore Gofri

0 urtetik

Goxotasuna
ESPERIMENTAZIOA
Konfidantza, Estimulazio goiztiarra
Arreta pertsonalizatua
Segurtasuna, IKAS KOMUNITATEA
Eskola baratz, Ekologia
PSIKOMOTRIZITATEA
Malgutasuna, PROIEKTUAK
Emozioak, Tertulia dialogikoak
MINDFULNESS, Zirkulazio librea
Familien partaidetza
Askotariko inteligentziak
Batzorde mistoak
Aniztasuna

BALIOAK, Ausarten kluba
Elkarrehintza, Eleaniztasuna
Cambridge exams, Adi lagun!
Hezkuntza espezialista propioak
ELKARHEZI net, Ekintza osagarriak
Liburutegi tutorizatuak, HERRIGINTZA
Ekintzaletasuna, Talde elkarrenergileak
Mundura Zabalik, BATXILERGO DUALA
Gizarte eragile, Proiektu errealak
GATAZKEN PREBENTZIOARAKO EREDU DIALOGIKOA
1x1, ORIENTAZIOA, Mundu ikuskerak
Arloko errefortzua
Gizarte eragileekin elkarlana.

18 urtera

Matrikula epea zabalik.

ATE IREKIAK

Urtarrila

2019

7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			
Otsaila				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10

Ikaskom: ikastetxeko espazioen erabilera eraginkorrerako saio partehartzailea.

Tertulia Literario dialogikoa: El Conde de Montecristo.

ATE IREKIAK.

Adingabekoen ziber-segurtasuna hitzaldia.

Estimulazio goiztiarra formakuntza saioa.

Jantokiko Ate-Irekiak. Zatoz egun batez gurekin bazkaltzera!
Izena emateko deitu 943718272ra



DEITU: 943718272 edo IDATZI: idazkaritza@elkarhezi.eus



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñati Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñati Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Oñatiko udaletik FCC botatzea, zerbitzuaren kalitatea baino askoz gehiago, sektore publikoa indartzea izan da

Xabier Infante (kiroldegiko monitorea), Joseba Beñat Elortondo (udal ikuskatzailea) eta Eñaut Unamuno (udaltzaina)

Duela gutxi bete dira bi urte Oñatiko udalak kale garbiketarako FCC-rekin zuen kontratua eten eta lanpostu hauek publikatzea erabaki zuenetik. Zerbitzuaren kostua murriztu eta kalitatea hobetzeaz gain, hau honen atzean zerbitzu publikoaren aldeko apustu garbia dago, horrek dituen ondorio onuragarri guztiarekin. Guk uste dugu udalek kalitatezko zerbitzuak eskaini behar dituztela eta zerbitzu publikoetako langileak, helburu horren norabidean subjektu aktibo izan behar direla. Norabide horretan, zerbitzu publikoaren eredu garden, euskaldun eta eraginkorra eraikitzen joateko hautua egin izana eskertzen diogu Oñatiko udalari.

Baina aukera baten aldeko hautu edo apustua egiteak beste aukera bat baztertu dela esan nahi du: zerbitzuaren pribatizazioa. Dena den "FCC-Kale garbiketa" klientelismoan oinarrituta eraikia izan den eredu oso baten adibide bat baino ez da, baina adibidea ondo datorkigu PNV-PSE-PP hirukiak eraiki duen eredu oso baten argazkia egiteko.

FCC enpresa munduaren alde ilunena erakusten duen adibide horietako bat da. Adibidez, duela hiru urte CNMC-k (Comisión Nacional de los Mercados

y la Competencia) 98,2 milioi euroko isuna ezarri zien FCC eta beste hiru multinazional handiri (ACS, Sacyr eta Ferrovial-ekin batera) espainiar estatuko udaletxe garrantzitsuenetako kontratuak beraien artean banatzeagatik. Hedabideek "Cábel de la basura" deitu zioten laukote honi. Ikerketaren arabera, negozioak egiteko beraien moduetan sartzen ziren, besteak beste, negozio hauetara gerturatzen ziren enpresa txikiagoen aurkako neurriak hartzea edota ekonomikoki erakargarriak ez ziren esleipenetara adostasunez ez aurkeztea, beste inor ere aurkezten ez zela ziurtatuz. Hau da, joko zelaia beraien mesedetara manipulatzeko zuten, estortsioetik **eta mafiatik** hurbil egon daitezkeen praktikak gauzatuz.

Zementuaren negozioan ere barruraino sartuta dago FCC, eta horrela ulertzen da erraustegiak eraiki eta kudeatzeko erakusten duen interes berezia. Gastu energetikoa murriztea ezinbestekoa da zementua egiten duten multinazional hauen lehiakortasunerako, eta hondakinak erretzetik eratorritako energia oso lagungarria zaie horretarako. Behin hau aipatuta, Zubietako erraustegia sutsuki defendatu duten alderdien eta enpresa hauen artean lotura zuzena dagoela aipatzeko aprobetxatzen dugu, hala nola Xabier Agiriano, Serbitzu S.L.-ko presidente eta PNVko Euskadi Buru Batzarreko kide izandakoa, edota Xabier Garmendia PSEko kidea.

Esandako guztia kontuan hartuz, FCCk Oñatiko kale garbiketarako zuen kontratua etetea, zerbitzu hobe baten alde egitetik haratago, beste eredu

baten aldeko hautua izan da, kudeaketa jasagarri eta justuago baten aldeko hautua hain zuzen ere.

Zorioneko pausua izanda ere, espero dugu ez dela izango bakarra eta, zabaldutako bidea ez etetea kale garbiketako zerbitzuan. Oñatiko herriak merezi du berak ordaintzen dituen zerbitzuak, ura, Lorazainak, eraikuntza garbitzaileak eta abar bere esku izatea. Zerbitzu publikoen kudeaketa zuzenaren onurak bistan daude gure udal brigadaren eta kale garbiketaren lan emaitzekin adibidez.

Baserritarren bitxikeriak

Izaskun Urizabel eta Joxe Ruiz, Oñatiko Naturzaien izenean

Baserritarrek egunero daude naturarekin kontaktuan, landare eta animaliei buruz asko dakite. Lagun batek esaten zigun: "Baserritarrek badakigu tomate landareak erdoiak edo gorriak jotzen baditu, kobreakin tratamendu bat baino gehiago eginagatik landare hura ez dela bere onera itzuliko. Mahats landareak dituzten baserritarrek ere, badakite mahats aleak jaso nahi badituzte, 8, 10 edo 12 tratamendu egin beharko dituela eguraldiaren arabera".

Guizti hau jakinda, baserritarrek, benetan sinisten al dute datorren udaberrian helikopteroz oxido kuprosoarekin tratamendu bat eginda 20-25 metrotako intsinis pinuak sendatu egingo direla? Ez ote da sinistu baino, sinistu nahia gehiago izango?



Negurako prestatzen

 Joxe Ramon Txintxurretaren argazki bikain honek ondo adierazten digun bezala, negua iritsi zaigu. Konkre-
tuki, abenduaren 21ean eman genion ongi etorria urteko urtaro hotzenari. Akaitz zuritu eta elurtu batetik, Oñatiren panorama eguzkitsua erakusten digu kontraste handiko erretratu honek.



J.R. TXINTXURRETA



Garibaiko bizilagunek konponbidea exijitzen dute auzoan bizi duten trafikoko arazo larriarentzat

Garibaiko bizilagunek idatzi bat bidali digute, auzoan bizi dituzten trafikoko arazo larrien berri emanez eta konponbideak exijituz erakundeei. San Pedroko bidegurutzea eta Magdalenako gasolindegia arteko errepide tartean dagoen arazo larriaz ohartarazten dute: gero eta trafikoko handiagoa, gero eta abiadura handiagoa, gero eta tonaje handiagoko kamioiak, istripu tasa handia (hamar eguneko bat)...

Zerga guztiak ordaintzen dituzten Oñatiko herritarrek diren aldetik, arazo larri honi soluzioa ematea exijitzen dute, errepide tarte honi dagokion moduko seinalizazioa ipinita. "Abandonatuta" sentitzen direla diote, "etengabeko arriskuan eta beldurtuta".

Beste edozein herritarrek bezala, beraien beharrianak dituztela gogoratzen dute: adineko pertsonen zaintza, joan-etorrian dabilzan haurrak... "Zoritxarrez, gure nagusiak zaintzera etortzen diren pertsonak utzi egiten diote etortzeari, auzora iristeko dagoen arriskuagatik" azaltzen dute.

"San Pedroko bidegurutzeko autobus geltokia berritzea eskatu genuen, eta beste bat egokitzea San Pedro eta Arrixakua artean. Ez dugu erantzunik jaso" gaineratzen dute. "Ez dago espaloirik, ez bide-bazterrik; inori ez zaio okurrizten bizikletan ibiltzea, ezta oinez ere, eta errepidea gurutzatzea oso arriskutsua da".

"Udaleko arduradunak eta diputaziokoak (azken hauen eskumenekoa da errepide tarte hau) bertan egon ziren, arazoa bertatik bertara ikusten. Bizpahiru egunetara radar-dun ibilgailu bat ipiniko zutela ondorioztatu zuten, eta orduz geroztik ez dakigu ezer".

Ohar eta deialdiak



Futboleko zozketa

Aloña Mendiko futbol sailaren Gabonetako zozketako hiru zenbaki sarituak agertu dira. Sari nagusia Madina-Korta familiak eraman du. Aloña Mendik eskerrak eman nahi dizkie laguntza ematen duten zale, jokalariei eta familiei.

Elkartasun azoka

Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta, abenduaren 15ean egin zen elkartasun azokan 1.700€ batu zituzten antolatzaileek, eta diru hori Larrañako errefuxiatuentzat bideratuko dutela jakinarazi du Elkar Hezik.



OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

*Gure ekintzen berri emango duen atala...***MILA ESKER URTE HONETAN GUREKIN EGOTEAGATIK!!!**

Urte honetan ere mila bizpizen konpartitu ditugu haur eta gazteekin batera. ESPERO DUGU DATORREN URTE BERRIA JOAN DENA BAINO ARE BEREZIAGOA IZATEA!!!

Hemen 2018ak utzi dizkigun momentu polit batzuk:



Slang



Oraino igaro den euskara batuaren berrogeita hamargarren urteurrena dela eta, makina bat artikulu, iritzi eta adierazpen egin dira. Gehienak hizkuntza batua izatearen garrantziaz, eta orain dela mende erdi hartutako erabakien zuzentasunaz eta egokitasunaz mintzatu dira; eta molde nagusi horri, oraindik EAEn eta Nafarroako iparraldean soilik ofiziala denari, funtzio nazionala eman zaio: herri (nazio) bat bagara, hizkuntza bakar estandarra behar dugula aipatu da behin eta berriz, hots, herri (nazio) honetako denak elkarrekin aise komunikatzeko balio duena, eta, horretarako, txokokeriak alde batera utzi beharraz ohartarazi digute, hain zuzen ere.

Gai honen harira irten den beste ezpal bat izan da, daukagun euskara batua ez ote den ortopediko, plastikozko edo artifiziala, egunerokoari



Roberto Altuna

erantzuteko desegokia, alegia. Eta kritika horri honela ihardetsi zaio: batua ez da ez motza, ez hotza, ez gatzik gabekoa; arrangura horiek norbere hizkuntzak izango ditu, bera izango da kamutsa eta eskasa eta ez batua, honek dagoeneko ederki frogatu baitu bere gaitasuna eta egokitasuna. Beraz, ahulezia edo gabezia inon egotekotan, hiztunarengan dago, eta ez hizkuntza estandarrean.

Baina horrekin batera aipatu da euskarak oraindik ez dituela garatu erregistro guztiak, batez ere kaleko ez formala, horren hutsunea agerikoa dela. Horri honela erantzun zaio: egiteko hori gazteei edo fikzioa lantzen duten sortzaileei dagokiela, eta ez akademiari. Bakoitzak daukala bere zeregina, alegia, eta Euskaltzaindiarena hizkuntza eredu estandarra, hau da, batua —batez ere idatzirako— arautu eta zaintzea dela, irakaskuntza, administrazio eta komunikabideetako erabilera formal edo jasoan baliatzekoa. Bestetik, 2004ko euskalkien erabileraz eginiko adierazpenean Euskaltzaindiak esan zuen, tokian tokiko hizkerek herri mailako erabilera

formal eta ez formaletan dutela euren lekua. Eta, azkenik, denok dakigu kaleko erregistro ez formalek, 'slang' delakoak eta bestelako argotek, ahozko eta idatzizko erabilera ez formalean dutela zentzua eta tokia.

Hori guztia jakinda, ez gaitezen harritu edota asaldatu, bada, Oñatiko kale eta tabernetan horrelakoak entzuten badiugu: *jota ondo ibili gara*, edo, *xaukena xauk*. Horiek kaleko hizkera horren bi adibide baino ez dira, eta hor, eta egoera horretan bakarrik, primeran erabilitakoak dira. Jantzkeretan, nabarmen gelditu gura ez badugu, denok ondo bereizten dugun bezalaxe, kaleko, laneko eta kiroletako arropa —kalekoen artean egunerokoa eta egun handietakoa bereiziz, gainera— bereiz ditzagun, bada, era berean, gure hizkuntza erregistroak, zeren, bestela, ohiko ezkontza batera bainujantzian edo pijamaz joaten denari bezalaxe gertatuko zaigu. Eta poztu gaitezen, gure herrian Euskal Herriko leku gutxitan bezala, hizkuntzaren erregistro guztiak erabiltzen direlako: estandarra, herrikoa, eta horren argota.

Bezeroen beharrei
erantzuteko prest!



GUALBI
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6
Tlf.: 943 78 16 48
email: onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com

Guraso eta hurrek ere badute lekua Antixena gaztetxean

Urtarrilaren 13an **Ekain-Txou** pailazoaren saioa egongo da



Antzerki, ipuin, magia, dantza eta kantu, haur eta gurasoei zuzendutako hainbat ekitaldi antolatzen ditu gaztetxeak

2012ko ekainean Antixenako eraikina okupatu zutenetik ehunka ekintza antolatu izan ditu Gaztetxeak. Ekitaldi gehienak gazte eta helduei zuzenduta egoten dira, baina haur eta gurasoentzako ikuskizunek ere badute lekua Antixenako egitarauan.

Hala, bost urtez, Irrien Lagunak klubeko kideek ikuskizun ederrak eskaini zituzten Oñatiko gaztetxean: *Hodei magoa*, *Tiritatxo*, *Martin bertso*, *Ane Pirata* eta enparauek kantuan eta dantzan jarri zituzten Oñatiko neska-mutikoak. Haur eta gurasoak magiaren mundura gerturatu izan dituzte, euskarak Oñatin duen osasuna neurtu dute, edota arrantzara joan dira dantzan.

2017an berritasun batzuekin etorri zen gazte asanblada, eta abenduan, lehen aldiz, haurrentzako ipuin kontalari bat, *Ane Gebara*, gonbidatu zuen Antixenako agertokira. Haur eta guraso asko bertaratu ziren, eta ipuin kontaketa ostean, herriko gazte

batzuen ekimenez, txokolate goxoa hartzeko eta eskulan desberdinak egiteko aukera izan zuten txikienek.

Aurten ere horrela izan da. Abenduan *Ameli eta Xirrikitu*en jostunak ipuin kontalariak egon ziren Antixenak, musika eta abestiak lagun, ipuin eta istorio miresgarriak kontatzen herriko haurrei.



EKAIN-TXOU PAILAZOA

Hilaren 13an Ekain-Txou pailazoaren lan berriaz gozatzeko aukera egongo da gaztetxean. Musika, magia, malabarrak eta, batez ere, umorea uztartzen duen ikuskizuna da. Uda guztian 'Gure Zirkua'-ko familiarekin hara eta hona ibili

ostean, Antixenara pozik itzuliko dela aitortu digu Ekainek, publikoa hurbil sentitzea gus-tuko duelako.

Arratsaldeko 18:00etan izango da ikuski-zuna. Sarrerak (3€) *Mizke* eta *Kiku* goxoki dendetan daude salgai.

Oñatiko inauteriak 2019



Maite Irizar- dantzan CCBY-SA

Aurten ere badatoz Oñatiko inauteriak! Martxoaren 2an ospatuko ditugu, herriko kaleak kolorez eta umorez alaituz. Eta egun horretan egingo diren dantzak ikasteko entseguak asteartetan (20:00) eta larunbatetan (12:00) izango dira. Lehenengoa, **urtarrilaren 8an** izango da, Eltzian. Animatu eta parte hartu!. Gogoratu, 16 urtetik gorakoek soilik parte har dezaketela (2003an jaiotakoak). Dantza egin nahi ez duenak ere badauka aukera pertsonaia bezala parte hartzeko.

Euskal Herriko txistorra onena



Jesus Odriozola harakina Euskal Herriko XXI. Txistor lehiaketa irabazi du. Abenduaren 11n egin zen sari banaketa Ordi-ziako azokan. Guztira 42 ekoizle aurkeztu ziren, eta epaimahaiak txistorraren itxura, osagaiak eta zaporea izan zituen kontuan produktu onena aukeratzeko.

Catalana Occidente
 Urte amaierako kanpaina
 Bizitza-erloko aseguruetan
%20 ko deskontua
 Motxon 5. behea
 638 16 79 84
 mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

Mikel Egaña Urrutia
 Aseguruak
 ✓ Heriotza (deserosi)
 ✓ Bizitza (vida)
 ✓ Osasuna (salud)

Almaraz
 Inmobiliari gestioa
 Tel.: 679411444
 www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz
 "Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

Gure beharra baduzu,
ondo-ondoan gaituzu.
Arrasaten.

Hain ondo zaindu nahi
zaitugunez, **Arratsaten** bertan
ere artatuko zaitu Zuatzu
klinikako espezialista-taldeak,
20 urtetik gorako esperientzia
duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbidea, 4 (bajo)
20500 Mondragón
943 792 018



www.clinicazuatzu.com

NAROA GARAI MARKULETA

Araski-Ointxe taldeko jokalaria

Arrasate eta Gasteiz artean, saskibaloiaz ikasten eta gozatzen

Emakumezkoen saskibaloiak ez du garai onena bizi Oñatin, baina badugu ordezkari bat, bidea urratzen ari dena. Naroa Garai, 16 urteko gaztea, Arrasateko *Ointxe* eta Gasteizko *Araski* klubek osatutako taldean ari da. Junior mailako Euskal Ligan jokatzen du, baina, dagoeneko, maila nazionaleko *Araski* taldearekin debuta egiteko aukera izan du. Askok ikasten eta gozatzen ari dela dio.

Aloña Mendiko infantil mailako taldean hasi zen jokatzen 12 urterekin. Urte horretan bertan Gipuzkoako pre-selektoria deitu zuten, eta hautatzailearen gomendioari jarraituz, Arrasateko *Ointxe* taldearekin entrenatzen hasi zen, astean behin.

Hurrengo urtean, Arrasateko kadete mailako Euskal Ligako taldean jokatzen hasi zen, eta iaz, Arrasateko *Ointxe* eta Gasteizko *Araski* klubek bat egiteak, Arabako saskibaloia taldearen ateak ireki zizkion. Gogoratu, Espainiako lehen mailako DIA ligan jokatzen duela *Araski*.

Junior mailako Euskal Ligako taldean jokatzen du Naroak, baina *Araski*ren bigarren taldearekin ere entrenatzen du, eta, dagoneko, 1. maila nazionalen debuta egiteko aukera izan du.

Garai batean Baskoniako jokalaria izan zen Txus Brizuela da bere entrenatzailea, eta asko ikasten ari dela esan digu Naroak. Astelehen eta asteazkene-

tan hiru orduko entrenamendu saioak egiten ditu Gasteizen; Jubenilekin lehenengo, eta nagusiekin jarraian. Ostiraletan Arrasaten entrenatzen du bere taldearekin. "Gasteizetik gaueko 11:30etan iristen naiz etxera, eta nahiko gogorra da, baina gustura nabil. Esperientzia ederra izaten ari da".

1,86 metro ditu Naroak eta pibot postuan jokatzen du. Saskipean moldatzen omen da ondoen, defentsa lanean, batez ere. "Erasoan ausartagoa izan behar dudala esaten dit entrenatzaileak, sarriago jaurti behar dudala". Gaztea da oraindik, eta, jakina, ikasteko asko dauka, baina gogorik ez zaio falta eta horixe da inportanteena.

Abenduaren 15ean urrats txiki bat gehiago eman zuen, eta Lehen maila nazionalen debutatzeko aukera izan zuen liga txapelketako partidu ofizialean. Gauzak ondo egiten ari den seinale.



Basketbasko

▪ Txus Brizuela Baskoniako jokalaria ohiairen aginduetara ari da junior mailako taldean

▪ Abenduan 1.go maila nazionaleko taldearekin debutatu zuen



ARASKI

Araski AES (Arabako Emakumeen Saskibaloia) elkarteak 2010ean sortu zen, Arabako emakumezkoen errendimenduko saskibaloiak behar zuen egitura egonkor eta jasangarriari erantzuteko asmoz. 24 talde eta ia 295 jokalaria ditu maila ezberdinetan. Teknikarien erdiak ere emakumezkoak dira, eta zuzendaritzako 7 lagunetatik 5 ere bai. Hitzartutako 9 klub ditu; horietako bat Arrasateko *Ointxe*.

Izena:

Naroa

Abizenak

Garai Markuleta

Adina

16 urte

Maila

Junior

Postua

Pibota

Altuera

1,86 m.

Talde

Ointxe-Araski
Euskal Liga

caravanas



oñate

• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Otadui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Otadui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)



2018ko kirolari onenak

Abenduaren 21ean egin zen bukatu berri den urtean nabarmendu diren kirolariei aitortza egiteko ekitaldia. **Aimar Erostarbe** txirrindulariak jaso zuen kirolari onenaren saria, bereziki Espainiako txapelketetan lortutako 3 dominengatik. Teknikari onenaren saria Murias taldeko zuzendari **Jon Odriozolarentzat** izan zen, eta talde onenarena Oñatiko **Plater Tiroko** taldearentzat. Aipamen bereziak jaso zituzten baita ere **Xabier Murgiondo** eta **Garazi Erostarbe** txirrindulariek, **Xabi Lete** mendi lasterkariak eta Aloña Mendiko igeriketa saila 33 urtez gidatu duen **Xabier Infante 'Artza'**k. Herritarren saria **Eric Martin** korrikalariarentzat izan zen, botoen %40,92rekin (Elene Guridi futbolaria %35,11 eta Ainhoa Redin igerilaria %23,97 ziren beste bi hautagaiak). Eguneko beste sari berezia **Anton Sierrak** jaso zuen, Herriko Futbol Txapelketa antolatzen 30 urte luzez egindako lanagatik. Txapelketako talde askotako ordezkariak bat egin zuten omenaldiarekin, argazkian ikusten den moduan.



Biain-Perez txapeldun

Ander Biain eta Iñigo Perez 'Erle'k Gipuzkoako seniorren 3. mailako txapelketa irabazi dute. 22-7 nagusitu ziren Zumaiako Iribar anaien aurka, Zubikoan jokaturako finalean. Azpimarratzekoa da, gainera, Iñigo gazte mailako pilotaria dela. Aurten bigarren mailan ariko dira.



Espainiako txapelketan

Maider Molinero, Aloña Mendiko eskubaloia jokalaria, autonomien arteko infantil mailako Espainiako txapelketan jokatzeko ari da egunotan (urtarrilak 2-7) Valladoliden. Galizia, Katalunia eta Nafarroa dira aurkariak lehen fasean, eta aurreneko biak sailkatuko dira finalerdietarako.





Etxe-Aundi
Hotela - Jantokia **
Tel. 943 78 19 56
www.etxeaundi.com



Psikologia irakurle taldea jarriko da martxan udal liburutegian

Silvina Fondra psikologoak gidatuko du taldea

Kultur gune bizia izatea da udal liburutegiko arduradunen nahia, eta eginahal horretan urrats berria eman dute Psikologiako Irakurle Taldea sortuta. Sortzez argentinarra, baina Oñatin bizi den Silvina Fondra psikologoak gidatuko du taldea, eta hilean behin elkartuko dira, dinamizatzaileak gomendatutako psikologiako testuak aztertzeko. Irakurketa horietan oinarrituz gai ezberdinak jorratuko dituzte: gure jokabideak, nortasuna, emozioak eta motibazioa, pertzepzioa. Gai orokorrak, baina pertsonen egunerokotasuna baldintzatzen dutenak.

Oraingoz bederatzi lagunek eman dute izena, eta urtarilaren 8an egingo dute aurreneko saioa *Carta de una desconocida* (Stefan Zweig) liburua hizpide hartuta. Izen emateko aukera zabalik dago oraindik. Saioak asteartetan izango dira, 18:30etan, gaztelaniaz. Informazioa eta izen ematea, udal liburutegian.



Arantzasu Ibarrondo udal liburutegiko zuzendaria eta
Silvina Fondra psikologoa

Idazketa lantegia antolatu nahi du udal liburutegiak

► **Jimu Iturralde** idazleak dinamizatuko du taldea. ► Idazteko zaletasuna duten 16 urtetik gorako herritarrei zuzenduta dago
► Izen-ematea zabalik dago

Urte berri, ekimen berri. Halaxe dator udal liburutegia, bistan denez. Oraingo honetan, idazteko zaletasuna duten herritarrei zuzendutako tailer edo lantegia antolatu du. Idazten hasteko behar den motibazioa, bultzada, formazioa eta informazioa ematea da helburua.

Joxemari Iturralde (Tolosa, 1951) idazlea ariko da gidari lanetan. Literatur genero ezberdinak landu izan ditu Iturraldek, eta, *Pott Banda* literarioaren edota Euskal PEN Klubaren sortzaileetako bat izan zen.

Tailerra euskaraz izango da eta 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Urean zehar 12 saio egitea da asmoa. Informazioa eta izen-ematea udal liburutegian.



Joxemari Iturralde idazleak
gidatuko du lantegia

Tertulixan saioak

Udal liburutegiko euskarazko irakurle taldeak hilaren 9an (18:30) egingo du hil honetako saioa, *Azukrea belazeetan* (Inazio Mujika Iraola) ipuin liburuaren inguruan, Yurre Ugartek gidatuta.

Gaztelaniazko taldea hilaren 16an (18:30) elkartuko da, *La uruguaya* (Pedro Mairal) nobelari buruz jarduteko, Iván Repilak gidatuta.

Ostegun kontalariak

Hilero bezala, azken ostegunean ipuin kontaketa saioa egongo da udal liburutegian. Urtarilaren 31ko saioa 3-5 urteko haurrei zuzenduta egongo da, haur liburutegian (18:00), eta Ines Bengoa ariko da kontu kontari. Hilaren 21etik aurrera banatuko dituzte gonbidapenak.



CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletelne.es



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

ARGI Festibalaren deialdia

Oñatin bi urtetik behin antolatzen den ARGI argazkilaritza festibalak eta Arantzazu Gaur Fundazioak 'ARGI ARANTZAZU-2019: egoitza artistikoa eta erakusketa' deialdia egin dute. Argizkigintzako bi lan aukeratzea da helburua, apirilaren 12tik maiatzaren 12ra, ARGI 2019 festibalak irauten duen bitartean Arantzazuko Gandiaga Topagunean binakako erakusketa batean erakusteko. 'Paisaia eta identitatea' da gaia, eta urtarrilaren 29a da proiektuak aurkezteko azken eguna. www.argifestibala.eus atarian kontsulta daitezke oinarriak.

Nietzsche eta kristautasuna

'Hil da Jainkoa?' izenburupean, Friedrich Nietzsche (1844-1900) filosofo alemaniarra eta kristautasunari buruzko autoformakuntza saioa egingo da urtarrilaren 15ean, asteartea, Antixena gaztetxean (18:30), Juankar Olaetak gidatuta. Interesa duten herritar guztiei irekia.

Estatuko krimenen lekuko mutuak

Euskal Memoria Fundazioaren izenean Joseba Zabaltzak osatutako 'Gogoan hartzeko izenak' erakusketa egongo da ikusgai kultur etxean urtarrilaren 14tik 27ra. Aldapeta, Endarlatsa, Irunberri... Estatuko krimenen lekuko izan diren tokiak eta biktima izan ziren pertsonen eta hauen senideen argazkiak eta testigantzak agertzen dira bertan.

'Beratu' jaialdiko argazkiak ikusgai

Iazko martxoaren 18tik 25era ospatu zen Oñatin 'Beratu' jaialdiaren lehen edizioa. Euskal Herriko musikaren topagune izan zen Oñati astebetetz (topaketak, mahai inguruak, kontzertuak...), eta orduan bizitakoa argazki bidez gogoratzeko aukera dago Eltziako topagunean, Ilunpetan taldeak prestatu duen erakusketaren bidez. Urtarrilaren 20ra arte.



'Jerardo Elortzarekin berbetan' liburua aurkeztu dute

Iazko ekainean, hainbat herritarren ekimenez Jerardo Elortzari egin zitzaion omenaldiaren baitan, udalak aurreratu zuen omenduaren izena eramango duen liburu bilduma bat sortzeko asmoa, eta dagoeneko kalean da lehen alea, Elortzari berari eskainia. 'Jerardo Elortzarekin berbetan' du izenburua, eta Iñigo Biain-Berraondok idatzi du. Elkarrizketa eran dago idatzia, eta Jerardo Elortzaren bizitzako gora-beherak eta bizipenak jasotzen ditu: haurtzaroa, seminario garaikoak, Alemanian egon zenekoa, soldadutzako kontuak, lan mundukoak... Garai bakoitzean Oñatin, Euskal Herrian eta munduan zegoen giroa ere azaltzen da liburuan zehar.

Jerardo Elortzak eskerrak eman zizkion Iñigo Biaini egin-dako lanagatik, eta eskerrak baita ere udalari eta herritar guztiei, urte osoan zehar erakutsitako maitasunagatik.

Txokolateixan eta herriko liburu dendetan dago salgai 10 eurotan. 'Jerardo Elortza' bildumako bigarren liburuak 60ko eta 70eko hamarkadetan Oñatira iritsitako etorkinei buruzkoa izango da eta udaberrirako egongo omen da prest.



Jose Fernandez

Azpiazu eta Kortabarria liburuaren aurkezpenean

Araozko saltzaile ibiltariaren bizitza liburuan

Anastasio Zubia (1916-1983) araoztarraren bizitzako ibilerak jaso dituzte liburu batean *Artixa* taldeko Jose Antonio Azpiazuk eta Migel Angel Kortabarria *Sarramendi*-k. Gerneta baserriko erdiko etxean jaioa, Anastasiok txikitatik izan omen zuen merkataria sena. Patricio Etxeberrian zuen lana utzi eta tratante bizitza aukeratu zuen. Inguruko herrietan nahiz Araba aldean ibili izan zen, astoa lagun, mahoizko telak, mahai-tesneria, garia, txerrikumeak edota emazteak jositako izara eta alkandorak saltzen.

Hala, 1960an, esaterako, 1.159 etxetara eta 6.190 bezerorengana iritsi zela dokumentatu dute egileek. Haren historia eta pasadizoak bildu dituzte liburuan. Ohiko tokietan dago salgai.



Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte
 **MAPFRE**
OÑATI

HAUR IKUSKIZUNA

Ipuin klasikoaren antzerkirako moldaketa, familia guztiari zuzenduta
17:00, Santa Ana (4€)



ANTZERKIA

Ander Lipusen azken lana. Bi aktore, bi anaia eta zazpi istorio.
19:00, Santa Ana



MUSIKA

URTARRILAK 4 / 19:00

HOTS ABESBATZA

'Angelus' kontzertua, ganbera orkestrak lagunduta. Sarrerak Txokolateixan. Arantzazuko santutegia.

URTARRILAK 4 / 22:00

JOSEBA IRAZOKI TA LAGUNAK + MONTAUK

Musikari beratarrak eta rock talde arabarrak disko berri bana aurkeztuko dute. Sarrera: 5€. Antixena gaztetxea.

URTARRILAK 6 / 12:45

MUSIKA BANDA

Musika bandaren kontzertua. Aurretik (11:00) kalejira egingo du. Santa Ana.

URTARRILAK 13 / 12:30

EraBatera

Gatibu, Ken Zazpi eta Willis Drummond taldeetako kidez osatutako taldearen kontzertua. Gaztelekua.

URTARRILAK 18 / 21:00

V. HANGOVER FEST


Metal jaialdia, BULEETS OF MISERY, WEED eta RODEO taldeekin. Antixena.

URTARRILAK 19 / 19:30

IZAKI GARDENAK

Pop-rock talde arabarraren

AGENDA



OSTIRALA **11**

Tartean taldearen 'GHERO: azken euskalduna' antzezlan. 3000. urtean kokatzen da. Euskara desagertzeko zorian dago. Azken euskaldunak izkin egin nahi dio halabeharrari.

Antzerkia

22:30, Santa Ana (Sarrera, 10€)

kontzertua (10€ takillan, aurrez, 8€). Gaztelekua.

URTARRILAK 20 / 19:30

CRAIC 'N' ROLL

Phill Doyle eta Donna Dunne rock musikari irlandarren kontzertua. Itturri taberna.

URTARRILAK 26 / 12:30

HERRIXA KANTUAN

Ikastolak eta musika eskolak antolatutako kantu jira. Foruen plazan.

URTARRILAK 27 / 12:30

ENERITZ FURYAK

Musikari irundarrak rock-folk estiloko azken lana aurkeztuko du. Antixena

gaztetxea.

OTSAILAK 3 / 19:30

THE NORTHAGIRRES

Urretxuko rock taldearen kontzertua. Itturri taberna.

BERTSOAK

URTARRILAK 5 / 22:30

BERTSO JAIALDIA

Errege bezperako bertso saioa. Gai-jartzaile: Txinpartea Bertso Eskola. Zubikoa kiroldegia.

HITZALDIAK

URTARRILAK 15 / 18:00

'Aiton-amonak zaintzaile:

nola eta zertan osasuntsua izan dadin'

Udalak eta herriko ikas-tetxeek antolatuta. Hitzlaria: Nerea Mendizabal. Aitona-amonak haurren zaintzaile lanetan aritzeak dituen onura eta arriskuei buruzko hausnarketa eta orientabideak. Euskaldunberria gela (Bidebarrieta, 18).

EKINTZA BEREZIAK

URTARRILAK 5 / 10:00

ARRIKRUTZEKO LEHOIAREN BILA

6 urtetik gorakoentzat. Izen-ematea: 94308200 edo arrikruz@onati.eus. Arrikruzteko koba.

URTARRILAK 5 / 11:00

OÑATI EZAGUTZEN JOLASA

XV-XVI. mendeetako erai-kinen berezitasunak ezagutzeko jolasa. Turismo bulegoa.

HAUR IKUSKIZUNAK

URTARRILAK 13 / 18:00

EKAIN TXOU

Musika, magia, malabaris-moa eta, batez ere, umorea uztartzen dituen ikuskizuna familia osoarentzat. Sarrerak (3€) Kiku eta Mizke goxoki dendetan. Antixena gaztetxea.

ARANGUREN & LAFLIN
Zubillaga 20, 8. bulegoa • garanguren@hotmail.es • Tel. 675709528

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

IPUIN KONTAKETA

URTARRILAK 31 / 18:00 INES BENGOA

3-5 urteko haurrentzako ipuin kontaketa saioa. Hilaren 21etik aurrera eskuratu ahal izango dira gonbidapenak. **Haur liburutegia.**

TAILERRAK

URTARRILETIK AURRERA AUTOEZAGUTZA

Nork bere izatea hobeto ezagutzeko tailerra. Hamar saio, hilean bat, urtarrilaren 12an hasita (9:00-14:00). Oñatiko Yoga Eskolaren lokalean (Bidebarrieta, 28). Informazio gehiago: 658 719 086 / lourdescidl@hotmail.com.

ERAKUSKETAK

URTARRILAREN 11ra ARTE LUR BUSTIAN IDATZIAK
Iñaki 'Jaltzo'k buztinez egindako lanak ikusgai. Egunero, 18:00-20:00. **Kultur etxea.**

**URTARRILAK 14 - 27
'GOGOAN HARTZEKO IZENAK'**
Euskal Memoria Fundazioaren eskutik. **Kultur etxea.**

FORMAZIOA

**URTARRILAK 15 / 18:30
'HIL DA JAINKOA?'**
Nietzsche eta kristautasunari buruzko autoformakuntza saioa, Juankar Olaetarik gidatuta. **Gaztetxea.**



Hileko gomendioa

Urtero bezala, adinka sailkatutako liburu, CD eta DVD gomendagarrien gida argitaratu du udal liburutegiak, eskualdeko liburutegiekin elkarlanean. www.oñati.eus webgunean edo liburutegian bertan kontsulta daiteke gida.

Neguko gida



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3

☎ **943 78 21 16**

Urtarrilak 9, 10, 18, 19, 20, 28 eta 29.
Otsailak 6 eta 7.

IGARTUA

Kale Zaharra 1

☎ **943 78 01 22**

Urtarrilak 11, 12, 13, 21, 22, 30, 31..

GARATE

Kale Barria 42

☎ **943 78 05 58**

Urtarrilak 4, 5, 6, 14, 15, 23 eta 24.
Otsailak 1, 2 eta 3.

TULDAIN

Kale Barria 6

☎ **943 78 11 28**

Urtarrilak 7, 8, 16, 17, 25, 26 eta 27.

ZINEA



Urtarrilak 3 - 7

ZINE KLUBA:

Western

NAGUSIAK:

Dantza

GAZTETXOAK:

Monky

Urtarrilak 17 - 20

ZINE KLUBA:

Lazzaro Fellice

NAGUSIAK:

Viudas

GAZTETXOAK:

El regreso de Mary Poppins

Zine-kluba: Osteguna (20:00)

Nagusia: Ostirala eta larunbata (22:30)

Igandea (19:30 eta 22:30)

Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Urtarrilak 10 - 14

ZINE KLUBA:

Petra

NAGUSIAK:

Superlopez

GAZTETXOAK:

Superlopez



MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZA BILA Oñatiko familia batek etxea alokairuan hartzeko behar du. Deitu: 666 741 493.

BABIA SALGA Duruan baserrian. Deitu 943 782 763 zenbakira.

GARAIE ITXIA salgai Olakua 9ko sotoan. 12,98m² eta aluminiozko sarrerako ate berria, eroso eta arina. Deitu konpromiso barik: 626 410 903.

GARAIEA SALGA Ugarkalde auzoan, 5-6 atarrietan, 18m². 17.000 euro. Harremanetarako, deitu 647 515 257 edo 610 751 017 telefonoetara.

ODOL ATERALDIA

URTARRILAK 11

Enpresagintza fakultatean, 17:00-19:00

COINBROKER
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

☎ 943 089 006 ✉ oinati@coinbroker.eus
🌐 www.coinbroker.eus

Amara igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Igogailuen eta 0 kotara proiektuak -Eraikinen mantentze planak (PUM)
-Jarduera lizentziak -Fatxaden eraberritze energetikoa -Diru laguntzen gestioa

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati

 Jerardo Elortza
eta Xabier Zelaia



OÑATI >

KALERIK
-
KALE



Mendiko kalea eta Bakardadeko Ama kalea (II)

Ahaztu baino lehen, zera esan gura genuke: azken alean egiten genuen galdera bati erantzuteko argibidetxo bat iritsi zaigula, **Izar Salaberriri** eskerrak. Nondik ote **Bordadores** kalea izendapena itauntzen genuen. Ba, udaleko artxibozainak jakinarazi digunez, Arkeolan enpresak burututako txosten batean XVI. mende-amaieran kale horretan **lencería** bat zegoela aipatzen da. Oihal-dendek eta brodatzaileek zerikusia izan zezaketen, agian.

HAINBAT ARTISAU, DENDARI ETA ENPARAU

Bestalde, inguru horretako beste ohiko lanbide bat **errementariena** zen: historian zehar sutegi mordoa ageri dira kale bietan, Mendikoan bereziki. Hauetariko batzuk, ziurrenik, **ultzegiñak** izango ziren, hots, iltzeak eskuz egiten zituztenak. Hori bai, sutegien jabeak herriko jauntxoak genituen gehiengotik, eta errementariak haien zati egin behar izaten zuten lana. Eta herriko beste kale eta auzo batzuetan gertatu zen bezala, XIX.aren hondarrean langabezian geratutako ultzezin ugari **banastagin** bilakatuko ziren, halaberharrez.

Mendiko kaleko **saskigileak** ezagunak ziren herri osoan: Jauregialtzotarrak, Larrastegitarak, Txapelenak eta abar. Etxepetan eta atarietan jarduten zuten nekazaritzarako, meategietarako edota industriatarako tamaina eta mota desberdinetako otarrak egiten. Kale estuaren akaberan, oraingo Errekalde auzorako sarrera horretan, **haritz edo gaztaina ondageixak** beratzen jartzeko ur-putzuak zeuzkaten, erreka ondoan. Ondageiatatik, labearen egosi ondoren, **zimitzak** ateratzen ziren, gero haiekin banastak egiteko.

Aurreko hilean kale hauetako tabernaren bat eta dendak aipatu genituen. Baina izan dira eta badira beste batzuk ere, jakina. Gure gogoenean, Zarateko etxean, Galartzaneko aurrean, **Xolonpo** taberna eduki zuten Nafarroako **Urmene-tatarrek** gerra ostetxoan; eta geroago lokal berean **La cepa** izenekoa **Manuel eta Francisca** senar-emazte galiziarrek; Mendiko kaleko Kortabarri etxearen azpian, berriz, **Felix Elvira** errioxarraren bodega handia egon zen urte askoan. Xolonpo-neko hurrengo atean **Pedro Lopez** pasiegoak eta bere familiak barkilloak, izozkiak eta gozokiak prestatzeko zuten obradorea kokatzen zen.

Bestelako komertzioen artean ezin ahanzi **Egañatarrek** garai bateko Moia kalean (orain Bakardadeko Ama bada ere) hirurogeitaka urtean izandako dendatzarra: ospetsuak ziren hango bakailaoa, kafea, olio eta lekariak. Janari-arloan **Garai harategia** aipa daiteke orainago Mendiko kalean. Sasoi batean posta-etxearen bulegoa egondako lokalean, **Maibi Arregik** eta bere alaba **Argiloainek** barne-diseinurako denda daukate aspalditxoan. Loradendarik ere ez da falta auzoan: **Kimu Ur-txin**. Zubillagara joan aurretik, **Gelatzu** eraikuntza-materialen almazena hortxe hasi zen eta puntura arte egon da inguruan **Osinaga** kirol-denda. Bueno, eta **ULMA** enpresa indartsuaren lehen urrats apalak ere Mendiko kalean eman ei ziren. Baina bukatzeko, kalearte horietan egondako beste bi toki bereziki buruzko oroitzapenak dakarkizuegu: arropa-garbilekuaren eta zerrategiaren gainekoak.



Mendiko kaleko banastagin-familia. Eskumatik ezkerrera: Ildefonso Jauregialtzo, altzoan Pedro semea duela; bere ezkerreko lehena Martin Jauregialtzo semea, eta hirugarrena Joxe Jauregialtzo iloba.

Martin Jauregialtzok utzitako argazkia

ARROPA-GARBILEKUA

Harrigarri samarra baldin bada ere, Oñatiko hirigunean **ez zen berandura arte arropak garbitzeko toki publikorik egon**. Erreka bazterretan edo malatuetan moldatzen ziren orduko emakumeak **puxetia** egiteko, hau da, etxekoen jantzi, izara eta gainontzeko oihalak xahutzeko. Beharra aspalditik sumatzen zen, eta 1768ra orduko, gutxienez, azaltzen dira udalaren aldetik asmo hori gauzatzeko desioak. Baina, XVIII. gizaldiaren amaiera eta XIX.aren hamarkadarik gehienak, dakizuenez, gerraz, istiluz eta zorrez jositako garaia izan ziren hemen eta beste leku askotan.

Nahiz eta 1829an, 1848an eta 1856ean ere gaia behin eta berriz plazaratu, ez zuten oñatiarrek **1882ra arte labadero** publiko bat kalegunean eraikitzerik lortu. Orduan ipini ziren, Juan Karlos Altzaa alkatearen ekimenez, Oñatiko hainbat txokotan iturri monumentalak; besteren artean, Santa Marinako plaza erdian dagoena. **Iturri hartarako obren azpiegitura aprobe-txatuz**, beheratxoago **arropa-garbilekua jartzea** pentsatu zen: **iturriari zerion ura erabiliko zen** eta beste obra batzuetatik soberan geratutako materialak ere bai.

Harrezkero, herri barruko beste zenbait kale eta ingurutan ja-
rri ziren antzeko **puxeta-tokiak**. Kaleko garbileku aitzindari hori mutikotan eta gaztetan ezagutu genuen orduko **Kuba** taberna eta **Correos** parean, oraingo Portu kalea zabaldu aurretik. La-
badero horrek **porlanezko plazatxo bat** zeukan gainean, ma-



Bakardadeko Ama eta Mendiko kalea XX. mendearen hasieran.

kina bat umeren jolasleku. San Migeletako **sokamuturrerako zezenak** ere inguru hartatik ateratzen zituzten urte batzuetan. Dena den, garbilekuak arazoak izan zituen aldameneneko zerrategiarekin, jarraian ikusiko dugunez.

ZERRATEGIA

Garbilekua egin eta laster beste obra garrantzitsu bati ekin zitzaion Bakardadeko Ama kale horretan. **Joakin Igartuak** 1893an Antzuelas-errekan **presa bat jasotzeko baimena eskatzen du**, ur-salto horren bidez sortutako indarra ondoan dituen **zerrategian eta txokolate-fabrian** erabili ahal izateko. Alabaina, ez zen, nonbait, eragozpenik gabeko proiektua suertatu. Dirudienez, lan horiek ondoko lur eta eraikinei **kalteak** erakartzen zizkien, aipaturiko labadero publikoari, besteak beste. Auzitan jardun zuten Igartua jaunak eta udalak, obra horrek eragindako kalteak konpondu arte.

Zerrategia gerra denborara arte aritu zen lanean paraje horretan, baina 1915 aldera jabez aldatuta, **Joakin Igartuari Biktork Galdosen erosi** baitzion; azken honi 1919an lantegia eraberritzeko baimena eman zitzaion, eta bere alargunari enpresa hori handitzekoa 1935an, Damian Lizaur arkitektoaren zuzendaritzapean. Hala ere, ez zuen inguru horretan asko iraun lanean, **Biktork Galdosen ondorengoek 1941ean zerrategi berria jaso zutelako lbarran**. Guk han ezagutu genuen **Galdoseneko zerria**, trenaren estazioetik urrin barik. Gerora Cegasa enpresak bereganatu zuen, manganeso-planta berria eraiki zuenean. Bakardadeko Ama kaleko lantegi zaharrak, berriz, hutsik jarraitu zuen, Portu kalea irekitzean, 1980ko hamarkadan eraitsi zuten arte.



Aurrean Galartzaneko etxea, eta atzerago Galdoseneko zerrategia, duela berrogeita hamar bat urte.



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





(*) Itten: arrastua, pistia

Itten bat

Kontu kontari

Fanderixaraiño barri billa

Periodikorik, radiorik, eta telebisiñorik be ez eguen denporan —eta zer esanik ez Internetik eta whatsappik— notiziak agorik ago zabalketan ziran, eta mandazaiñak eta karreteruak ziran, beste batzuen artian, barri horreik zabalketan zittuñak herri batetik bestera.

Halaxe, Zubillagako errotako Mateok ohitturia eukan egunero-egunero eguerdi aurtxuan errotatik Fanderixaraiño fateko oiñez, ordu horretan San Prudentzio aldetik etorten zan karreteruaren zain egoteko. Ha aillegaitten zanian, aldamenian jarri eta bixok bata bestiaren onduan kontu kontari etorten ei ziran berriro errotaraiño. Hala enteraitten zan ondoko herrixetan eta urriñagokuetan pasaitten ziran albistiakin: ferixako kontuakin hasi eta azkeneko heriotzera arte, tartian baiña, leku bateko edo besteko asmuak, nunbaitzuetan pasautako ezbiharrak, eta iñun izandako kontu danak ondo mentauaz.

Agorik agokua eta zuzen-zuzenekua izaten zan orduko Internet.



Ezetz asmau

Lotu auzo bakoitza bere jaixarekin eta jaixori ospaketan dan hillabetiarekin (II)

- | | | |
|-------------------|-------------------|------------------|
| 1. Murgixa | a. Sanandresak | 1. Bagillian |
| 2. Olabarrieta | b. Madalenak | 2. Mariatzian |
| 3. Santxolopetegi | c. Andramarixak | 3. Bagillian |
| 4. Torreauzo | d. Asentziuak | 4. Agustuan |
| 5. Uribarri | e. San Josiak (1) | 5. Garagarillian |
| 6. Urrusula | f. Santikutzak | 6. Zemendixan |
| 7. Zañartu | g. Sanpedruak | 7. Mariatzian |
| 8. Zubillaga | h. Sanpedruak | 8. Agorrian |

(1) Olabarrietan martixaren 19tik mariatzaren 1era pasau ziran jaixok 1950 inguruan, garizumarekin batera ez tokaitiarren. Hori baiño lehenago, 'Patroziñuak' zelebraitzen ziran, Pazko egunetik hiru astera.

Noiz egongo gara? Sanandresetan, Madalenetan, Andramarixetan, Asentzioetan, Sanjosetan, Santikutzetan, Sanpedruetan.


Sinonimuak

Billatu aditz honein sinonimuak

- | | |
|-------------------------|---------------------------|
| 1. Íxo | A. Izendatu |
| 2. Esana egin, obedeziu | B. Eho |
| 3. Gogor egin | C. Nabaritu, sumatu |
| 4. Barri emun, abisau | D. Eskaini |
| 5. Izentau | E. Joan |
| 6. Somau, igarri | F. Obeditu |
| 7. Eskiñi | G. Jakinarazi, ohartarazi |
| 8. Tolestau | H. Eutsi |
| 9. Fan | I. Irristatu |
| 10. Labandu | J. Tolestatu, eran jarri |

Billatu aditz honein sinonimuak (II): 1d2, 2e7, 3b5, 4h3, 5a6, 6c4, 7f8, 8g1
ERANTZUNAK: 1B, 2F, 3H, 4G, 5A, 6C, 7D, 8J, 9E, 10I

ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIAK



Zubillagako Gabonak

Orain dala berrogeta hamar bat urte **bazan Zubillagan mobimendua** eta gauzak egiteko gogua. Egixa da momentu latzak be pasau zirala lehentxuago: Forjak Azkoittira eruatiak **erasan haundi samarra** egin otsan auzuari eta, hori zelabait konponketako, **beste industria batzuk sortzeko ahalegin serixuan** ziharduain batzuk; orduan jarri ziran, esaterako, kooperatiba batzuen oiñarrixak: kale aldian **Ulma** inddarketan hasi zanian, Zubillagan be **Gaitu** jaixo zan, gerora **Enara** izena hartuko ebena.

Kultura esparruan be etziran atzian geldittu zubillagarrak eta orduan Oñatin eratu guran ebitzen **ikastoliaren lehenengo pausuetan partehartze zuzena** euki euen: kaleko ikastolako lehenengo andereñua auzokua zan eta laister asmau zan bertako umiai be eskolia euskeraz emuteko modua. **Neskatillen dantza-taldia** kalia baiño lehenago abixau zan eta 1970eko I. Haurren egunian zubillagarrak izan ziran Oñatiko ordezkariak. Giro horren barruan antolatu ziran urte hareittan **Gabonetako ibillaldixak**, karroza eta guzti. Argazkixetan ikusten diran jaiotza dotoriak eta ume-pillatxuak garbi adierazten doskue Zubillagan baten batzuk majo saiaketan zirala organizaziño-lanetan.

Dana dala, badakoi fotografixok bestelako interesik. Sasue bateko ohittura eta ospakizunez gain, **auzuaren historixa industrialaren testigantza grafiko inportantiak** erakusten dittue-eta. Bestiak beste, ola zaharraren instalaziñuak aprobetxauaz, hainbat urtian lanian jardun eben **Forjetako fabrikiaren zati bat**; hango **langillientzako** jasotako **etxe-illariaren ikuspegixa**; edota orduan Zubillagan **zerrak** euki euen garrantzixaren lekukotasuna. Handik 10-15 bat urtera ezkutauaz fan ziran ixa danak.

Argazkixak 1960ko hamarkadiaren azken aldikuak izango dira, Manolo Etxanizek ataratakuak, seguruenik. Guri Arantxa Elor-zaren bittartez aillegau xaku. Milla esker!





centro hogar MUEBLES



ZIGARROLA 1
TEL.: 943 71 10 12
943 79 15 03
ARRASATE



ZERKAOSTETA 3
TEL.: 943 71 10 11
ARRASATE

**grupo
amuebladora
mondragonesa**

1956-2016
6
URTE
ESKERRIK ASKO !!